



BERDINTASUNA PANDEMIA- GARIAIAN

COVID-19aren eragina genero-
ikuspegitik



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Titulua: Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik.

Editorea: Emakunde- Emakumearen Euskal Institutua

Lantaldea: EDE Fundazioa

Txostena noiz egin den: 2020ko uztaila

Aurkibidea

Aurkezpena	1
Zergatik eta zertarako honelako txosten bat?	2
Osasunean duen eragina, zentzurik zabalenean	5
COVID-19ak berdin eragin al die emakumeei eta gizonei?	6
Zer ondorioz eman behar genioke arreta?	7
Zer beste arrisku dago?	8
Norantz bideratu beharko lirateke erantzunak?	9
Ordaindu gabeko zaintza-lanetan duen eragina	10
Nork egiten zituen zaintza-lanak COVID-19aren aurretik?	11
Zer gertatu da konfinamenduan zehar? Aldaketa handiak gertatu al dira zaintza-lanen banaketan?	12
Zer familia motak izan ditzake zailtasun bereziak?	14
Zer efektu aurreikus daitezke epe ertain edo luzera? Zer aukera aprobetxa daitezke?	14
Norantz bideratu beharko lirateke erantzunak?	16
Ordaindutako lanaren merkatuan duen eragina	17
COVID-19aren aurretik, zer leku zuten emakumeek merkatu horretan?	18
Zer eragin izan da berehalakoena? Zeri eman behar genioke arreta?	19
Zer rol jokatu du telelanak?	23
Zer iragar daiteke epe ertain edo luzerako? Zer arriskuren aurrean gaude?	24
Norantz bideratu beharko lirateke erantzunak?	25
Emakumeen aurkako indarkerian duen eragina	26
Zein zen egoera krisiaren aurretik?	27
Zer eragin izan du konfinamenduak emakume horiengan eta haien seme-alabengan?	28
Zer egoerari eman behar genioke arreta?	31
Zer espero daiteke konfinamendu ondorenerako?	32
Norantz bideratu beharko lirateke erantzunak?	34
Pobrezia eta bazterkerian izango duen eragina	35
Zein da abiapuntua?	36
Krisi berri honen inpaktuak zer eragin du?	36
Norantz bideratu beharko lirateke erantzunak?	39
Parte-hartzea, inpaktua gutxitzeko gako	40
Zertan eta nola parte hartu dute emakumeek krisi honetan?	40
Norantz bideratu beharko lirateke erantzunak?	42
Intereseko erreferentziak	43
Martxan jarritako neurriak	44

Aurkezpena

COVID-19aren ondorioz, azken aldiko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi garrantzitsuen gertatu da, eta agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu dira mundu osoan.

Pandemia desberdin ari da eragiten emakumeengan eta gizonengan eta datuek erakusten digute emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela krisi honen ondorio negatiboan aurrean. Horregatik, premiazkoa da genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzea, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea saihesteko.

Ildo horretan, euskal erakunde publikoen lehentasunetako bat izan da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetarako arreta-zerbitzuen funtzionamendua bermatzea, bai eta biktima guztiek zerbitzu horietarako sarbidea izatea ere, haien aniztasuna kontuan hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoan, pandemiak iraun duen bitartean, zerbitzu horiek funtzionatzen jarraitu dute, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, inplikaturako gainerako erakundeekin lankidetzan, arlo horretako erantzun instituzionala koordinatu du.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu ditu indarkeria matxista ez den beste esparru batzuetan, hala nola kontziliazioan, erantzunkidetasunean eta berreraikitze politikan. Neurri horiek Emakunderen webgunean eskuragarri dagoen dokumentu honetan kontsulta daitezke: *COVID-19ari aurre eginez eta etorkizuna eraikiz berdintasunetik. Emakunderen gomendioak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak.*

Dokumentu honek jarraipena eman nahi dio lan-ildo horri, eta eragile sozioekonomikoei gakoak eskaini nahi dizkie, COVID-19aren pandemiak emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina nola eta zergatik duen hobeto ulertzen laguntzeko, bai eta gomendiok eman ere erantzunak genero-ikuspegia kontuan hartuta egokitzeko eta ondorio negatiboak minimizatzeko. Hori guztia, epe labur, ertain eta luzean hartuko diren neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, inor atzean ez uzteko, Garapen Iraunkorrerako Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasotako konpromisoarekin bat etorritik.



Izaskun Landaia Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria



“**Pandemiaren krisiak ez die guztiei berdin eragin: emakume eta neskek krisi honen eragin negatiboak jasateko aukera gehiago dituzte.**

“**Krisialdiek eraldaketa sozialerako eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako aukerak sortzen dituzte .**

“**Txosten honen bidez, Emakundek genero-ikuspedia txertatzen duen analisia egin nahi du, COVID-19aren pandemiaren generoaren araberako eragin diferentziala ikusarazteko eta izan dezakeen eragin negatiboa nola ekidin daitekeen azaltzeko.**

2020ko martxoaren 11n Munduko Osasun Erakundeak (MOE) COVID-19ak eragindako gaixotasun infekziosoari pandemia deitu zion. Osasun-larrialdiaren ondorioz ezohiko neurriak hartu behar izan dira, esaterako, konfinamendua, mugikortasuna mugatzea eta distantzia soziala, zeinak munduko herrialde askotan, pertsona guztien egunerokoa eta jarduera asistentzial eta produktiboa aldarazi baitute, eta horrek mundu-mailako krisi ekonomiko eta soziala eragin du.

Gaixotasuna Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) hedatu zenean, martxoaren 13an Eusko Jaurlaritzak osasun-larrialdiari buruzko deklarazioa onartu zuen eta **Euskadiko Babes Zibileko Plana** aktibatu zuen.


Egun bat geroago, Espainiako Gobernuak alarma-egoera¹ dekretatu zuen osasun-larrialdia kudeatzeko. Horren efektuek gure autonomia erkidegoan 19ra bitarte iraun baitzuten, orduan sartu baitzen indarrean epidemia kontrolatzeko neurri espezifikoak hartzea ahalbidetzen duen berezko esparru erregulatzailerik bat².

Lehenengo asteetan zehar, salbuespenezko egoera horrek etxean konfinatzea eta funtsezkotzat jo ez ziren jarduerak guztiak etetea ekarri zuen; ondoren, apurka-apurka malgutu dituzte pertsonen zirkulazio librerako mugak eta besteak beste merkataritza-, hezkuntza-, eta aisialdi-jarduerak eteteko aginduak (progresiboki normaltasunera itzultzeko helburua duen osasun-, gizarte- eta ekonomia-trantsiziorako «Bizi Berri Plana» izendatu duten horren bidez).

Hala ere, **pandemiak eragindako krisi honek ez du eragin bera izan pertsona guztiengan**. Kalte handiagoak izaten ari da eta izango ditu aurretik zaurgarritasun handiagoko egoeran zeuden pertsonengan: lanpostu prekarioak dituztenak edo langabetuak, etxegabeak, desgaitasunak edo gaixotasun kronikoak dituztenak, adineko pertsonak, migratzaileak, etab. Pandemiak aurrez zeuden desberdintasunak ageriago uzteko eta areagotzeko boterea du.

Era berean, genero-desberdinkeria azaltzen du talde horien artean **emakumeek eta neskek diskriminazioa eta indarkeria jasateko eta beren eskubideak urratzeko arrisku handiagoa** dutela.

Genero Berdintasunaren Indizeak³ gizonen eta emakumeen arteko desparekidetasunak –beren ongizateari eta garapen pertsonalari eragiten dioten esparru guztietan– neurtzeko balio du. Azken neurketen arabera, aurrerapauso iraunkorrak gertatzen ari dira (2010ean 100 puntutik 68,8ko puntuazioa izan zuen; 2017an, aldiz 71,1koa). Hala ere, hobekuntzarako tarte handiagoa dago oraindik. «Osasuna» dimentsioa da berdintasunera gehien hurbiltzen dena (92,4 puntu), eta «Boterea» dimentsioak erakusten du genero-arrakalarik handiena (58 puntu).



Oharrak: EUSTAT. Genero Berdintasunaren Adierazlea. 2017

¹ Martxoaren 14ko 2020/463 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko.

² 2020ko ekainaren 18ko Agindua, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak buruzkoa.

³ EUSTATEK Berdintasunerako Europako Institutuaren metodologia batean oinarrituta egiten duen adierazle sintetikoak da, EAEn genero-berdintasunean gertatzen diren aurrerapenak Europar Batasunak eta bertako 28 herrialdeek dituzten erreferentziekin alderatzeko balio duena. Osotara modu hierarkikoan ordenatutako sei dimentsiotako 31 adierazleak osatzen dute, eta era berean, horiek 14 azpi-dimentsiotan daude banatuta. 1 balioak erabateko desberdinkeria adierazten du, eta 100ek erabateko berdintasuna. Iturria: EUSTAT. Genero Berdintasunaren Indizea. 2017.

Iritzi baikorrenek diote krisialdiak aukera onak direla eraldaketa sozialerantz aldaketak eragiteko, eta zentzu horretan, COVID-19aren krisiak aukera berezia sor dezakeela dinamika soziala desafiatzeko emakume zein gizonen mesedetan. Sistema honek ezin duela jasagarria izan ikusteak eta hark eragindako desoreken ebidentziek ekarriko al dute egiturazko aldaketarik? Ba al dago seinalerik pandemia igarotakoan jendarte berdinzaleago batean biziko garela pentsatzeko? Hezkuntzan erabili ahalko al da krisialdia berdintasuna indartzeko?

Beste alde batetik, ezkorrenek haren arriskuez ohartarazten gaituzte: krisia eta oinarritzko beharren presazkotasuna aitzakia bilakatuko al dira sakoneko desberdintasunak jorratzea gerorako uzteko? Asmatuko al da premiazkoa denaren eta garrantzitsua denaren artean oreka topatzen? Zer izango da lehentasunezkoa murrizketen testuinguru honetan?

Txosten honekin **Emakundek genero-ikuspegitik egindako analisi bat eskaintzeko xedea du, azalduz COVID-19aren pandemiak nola eta zergatik eragiten dien desberdin emakumeei eta gizonei**. Izan ere, krisiak desberdin eragiten die emakumeei eta gizonei, ez gaixotasunaren prebalentzian bakarrik, baita ongizate emozionalean, familia-harremanetan, zaintza-lanen banaketan, enpleguan, eta gizarte-bazterkerian ere, besteak beste. Txostena errealitate horretara dimentsio anitzeko hurbilketa egitea helburu duten atalez osatuta dago. **Gainera, aztertutako esparruei lotutako gomendio sorta bat dakar⁴, erantzunak egokitzeko eta ondorio negatiboak minimizatzeko inplikaturik dauden eragile sozioekonomikoek –esparru publiko zein pribatuetan– jarraitu beharreko bidea seinalatzen dutenak.**

⁴ Duela gutxi argitaratutako hainbat txostenetatik atera dira ondorioak. Txosten honen azken atalean aurki daitezke erreferentziak.

Osasunean duen eragina, zentzurik zabalenean



Orain arte, COVID-19 birusarekin diagnostikatutako **hamarretik sei emakumezkoak** dira. Izan ere, genero-rolen banaketaren ondorioz birusarekiko esposizioa ere desberdina da generoaren arabera, eta horrek eragina izan dezake datuekin.

Krisiaren unerik gogorrenetan, nagusiki emakumeek hartu dute bere gain bizitzaren sostengua, etxean zein etxetik kanpo:

Pandemian zehar bizitzak salbatzen jardun duten osasun-arloko langileen artean, **hamarretik zortzi emakumezkoak** dira.



Adinekoen egoitzen sektorean lan egiten dutenen artean, **hamarretik zortzi emakumezkoak** dira.




Mendekotasuna dutenen zaintzaile ez-profesionalen artean, **hamarretik bederatzia emakumezkoak** dira.



Izan duten gaitzesak eta estres gehigarriak haien ongizate psikologikoa kaltetu du:

lautik batek

lo egiteko arazo handiagoak izan ditu.




XXI. mendeko nazioarteko osasun-krisirik esanguratsuena izan den honek gonbidapena luzatzen digu gogoeta egin dezagun osasun-arloan genero-ikuspegia zenbateraino hartzen den kontuan.

COVID-19ak berdin eragin al die emakumeei eta gizonei? Pandemian zehar, sexuen arabera bereizitako kutsatze-, ospitalizazio- eta heriotza-datuak aldakorrek izan dira, eta ez da lan erraza izan ondorio argiak ateratzea. Azken datuen arabera, EAEn COVID-19arekin **diagnostikatutako kasuen artean gehiago dira emakumeak gizonak baino, zehazki % 61 izan baitira emakumeak.**

Era berean, datuek desberdintasunak erakusten dituzte sintomatologian, arrisku-faktoreetan, ospitalizazio-tasan, ZIUetan onartutako pertsonen zifretan eta hilkortasun-tasetan. EAEn kutsatutako emakumeen % 22,7 ospitaleratu dituzte; gizonen kasuan, ordea, datu hori % 44,8koa da.

Orobat, Espainian diagnostikatutako emakumeen % 6,3 hil da eta gizonen % 10,9⁶.

Sintomatologiari dagokionez, azken ikerketek⁷ erakutsi dute gizonak ehuneko handiagoan dutela pneumonia emakumeek baino (% 64,6 gizonak, eta emakumeek % 44,7)⁸, eta emakumeek beste sintoma batzuk gehiago izaten dituztela, adibidez, beherakoa edo gorakoa.



Iturria: OSASUN SAILA- EUSKO JAURLARITZA Koronabirusaren egoera epidemiologikoa Euskadin (COVID-19). 2020ko ekainaren 12ko Aldizkaria

Hamarkadak dira ikusarazi zela generoa erabakigarria dela osasunean eta funtsezkoa dela osasun-arazoak honako hauek kontuan hartzen dituen genero-ikuspegitik egitea: emakumeek eta gizonak, gaixotasun berberak izanagatik, sintoma desberdinak izan ditzakete eta erantzun desberdina izan dezakete tratamenduen aurrean; hori kontuan ez izateak zaildu egin dezake norberak zein osasun-langileek sintomak identifikatzea; gaixotasun batzuek soil-soilik bi generoetako bati eragin dakieke, eta gaixotasun batzuek ondorio desberdinak izan ditzakete batengan edo bestearengan, besteren artean.

⁵ Iturria: OSASUN SAILA- EUSKO JAURLARITZA. KORONABIRUSAREN EGOERA EPIDEMIOLOGIKOA EUSKADIN (COVID-19)

⁶ Iturria: Equipo COVID-19. RENAVE. CNE. CNM (ISCIII). Análisis de los casos de COVID-19 notificados a la RENAVE hasta el 10 de mayo en España. Informe COVID-19 nº 33. 2020ko martxoaren 29

⁷ Iturria: ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOA ZAINTZA EPIDEMIOLOGIKOARAKO CARLOS III OSASUN-INSTITUTUA COVID-19aren Txosten Orokorrak 2020ko ekainaren 12ko Aldizkaria

⁸ Iturria: idem.

Desberdintasun horien jatorria izan daiteke bizi-estilo desberdina izatea (arrisku-faktoreen prebalentzia handiagoa da gizonen artean) edo sexuaren arabera infekzioen erantzun immunologikoa desberdina izatea. Baina, era berean, esposizioan ere desberdintasunak daude, **genero-rolen arabeko banaketaren eta emakumeei egotzitako zaintza-lanen eraginez:**

- Bizitzak salbatzen lan egin duten osasun-langileen eta ospitaleko beste langileen artean emakumeak dira gehienak: **Osakidetza langileen % 78 emakumezkoak dira**⁹.
- Emakumezkoak dira egoitzetan adinekoak zaintzen egon diren langileen gehiengoa: **Espanian sektore horretan lan egiten duten 10 pertsonatatik 8 emakumezkoak dira**¹⁰.
- Etxeetan pertsona zaurgarrien bizitzaren sostengua bere gain hartu dutenen artean ere emakumezkoak dira gehienak: **mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile ez-profesionalen % 89,2 emakumeak dira**¹¹.

Zer ondoriori eman behar genioke arreta? Osasunaz ari garela, ez dugu osasun fisikoan bakarrik pentsatu behar; osasuna ez guke gaixotasun-ezarekin nahasi behar. Garrantzitsua da pandemia honek ekar ditzakeen efektu psikologikoei eta ondorio emozionalari erreparatzea, bereziki emakumeei dagokienez, haiek baitira gaixotasunaren aurrean zaurgarrienak diren pertsonekin arreta zuzenean gehien egon direnak, eta baita heriotzarekiko eta etxeko zaintza-lanen gehiegizko lan-kargarekiko esposizio handiena izan dutenak ere. Gaiak horrek norberaren zaintza eta osasun mentalean eragiten du.

Pandemiak, **konfinamenduak eta krisiak guztion osasun mentalean eragiten du modu batera edo bestera**, baina desberdin emakume eta gizonengan, desberdinak izan direlako beren konfinamendu-esperientzia eta izan dituzten estres-iturriak. Ez dezagun ahaztu zaintza-lanetan aritu diren emakumeek testuinguru horretan presio gehigarria eta erantzukizun-gaikarga izan dituztela.

EHUren ikerketa baten arabera¹², konfinamenduan areagotu egin da ondoez psikologikoa, nagusiki ezjakintasunak, gaixotasun larri bat izatearen edo izateko aukeraren kezka eta maite ditugunak galtzeko kezka eraginda. Datuek erakusten dute **emakumeek gehiago egin dutela okerrera kontu horietan**, eta baita egonkortasun emozionalarekin lotutako beste elementu batzuetan ere: gehiago jasan dituzte lo egiteko arazoak, kontzentratzeko zailtasunak, antsietateak, umore-aldaketak, deskonektatzeko arazoak edo narritadura.

⁹ Iturria: OSAKIDETZA- OSASUN SAILA. Ezagutu Osakidetza [online] <https://www.osakidetza.euskadi.eus/osakidetza-eus/-/ezagutu-ezazu-osakidetza/> [Kontsulta: 2020ko ekainaren 20a]

¹⁰ EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019ko IV. hiruhilekoa.

¹¹ Iturria: IMSERSO. Datos sobre cuidadoras no profesionales. 2020.

¹² BALLUERKA LASA, NEKANE et al. *Las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento*. EHU, 2020.

Espania 2020				
Konfinamenduan zehar asko igo da...		Emakumeak	Gizonak	Aldea
Lo egiteko arazoak	»	% 25,8	% 14,2	11,6
Ezjakintasun-maila	»	% 45,4	% 33,8	11,6
Maite dugun jendea galtzeko beldurra	»	% 40,5	% 29,5	11,0
Kontzentratzeko zailtasunak	»	% 16,1	% 7,8	8,3
Angustia eta antsietate-maila	»	% 11,3	% 4,6	6,7
Umore-aldaketak	»	% 13,5	% 7,3	6,2
Kezkak ahazteko zailtasuna	»	% 12,6	% 6,9	5,7
Ondoez psikologikoa	»	% 12,1	% 6,8	5,3
Haserrea	»	% 12,1	% 7,3	4,8
Besteei laguntzeko asmoa	»	% 12,0	% 8,4	3,6
Gaixotasun larri bat izatearen edo izateko arriskuaren inguruko kezka	»	% 30,2	% 26,7	3,5
Erru-sentipena	»	% 4,1	% 1,3	2,8
Konfiantza- eta baikortasun-sentipenak	»	% 2,8	% 2,9	-0,1
Lasaitasun-, patxada- eta erlaxazio-sentipenak	»	% 4,2	% 5,2	-1,0

Iturria: BALLUERKA LASA, NEKANE et al. *Las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento*. EHU, 2020.

Zer beste arrisku dago? Osasun publikoa kolapsatzeko arriskua eta pandemiari aurre egiteko kezka berezia zegoenez, bestelako osasun-programa batzuk atzeratu egin dira, eta ondorioz, baita **beste osasun-behar batzuk** zituztenen arreta ere (gaixotasun kronikoak...).

Organismo batzuek ¹³ohartarazten dute lehentasunak eta osasun-baliabideak krisiaren beharren arabera birmoldatzeak –eta horri beste neurri murriztaileak gehituta– bereziki sexu- eta ugalketa-zerbitzuetarako sarbidea oztopatzea ekarri duela. Europa osoko hainbat kolektibok ¹⁴haurdunaldiak borondatez eteteko eskubideari eustea aldarrikatu dute, baita hori funtsezko neurritzat aitortua izatea eta pandemian zehar berariazko neurriak hartzea ere ondoren eskubide hori bete dadin.

¹³ HUMAN RIGHTS WATCH *Europe: abortion curbs endanger women, girls in pandemic* [online]. Human Rights Watch, 2020.

¹⁴ NAZIO BATUEN POPULAZIOAREN FUNTSA COVID-19: *Genero hurbilpen bat: Osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak bebestea eta genero berdintasuna babestea* New York: UNFPA, 2020.

GOMENDIOAK: Osasunean duen eragina, zentzurik zabalenean



Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten COVID-19aren informazio-, prebentzio- eta detekzio goiztiarrerako kanpainak sustatzea (arrisku-faktore eta sintomatologia desberdinak kontuan hartzen dituztenak), eta segurtasun-neurrien inguruko informazioa denentzat eskuragarri dagoela eta ulergarria dela bermatzea.



Oinarrizko zerbitzuetako langileen segurtasun eta osasun fisikoa bermatzea, emakumeen eta gizonen behar desberdinak kontuan hartuz (sektore soziosanitarioko langileak eta ahaztu gabe etxeko laguntza zerbitzuetako, egoitzaetako, botiketako eta etxeko langileak zein garbitzaileak eta elikagaien sektoreko langileak), eta, behar izatekotan, etxebizitza-alternatibak ematea senideak kutsatzea saihesteko.



Langile horiei arrisku psikosozialen aurrean prebentzio eta osasun mental eta psikosozialerako laguntza egokia ziurtatzea.



Emakumeen eta nesken oinarrizko osasun-zerbitzuak babestea, sexu- eta ugalketa-zerbitzuak barne.



Emakumeen eta gizonen egoeren, baldintzen eta beharren inguruko analisia eta kontzientziarazioa sustatzea eta, bereziki genero-ikuspegia txertatzea osasun-politiketan eta pandemia honen ikerketan eta arretan.

Ordaindu gabeko zaintza- lanetan duen eragina



Konfinamendu-aldia baino lehenago, emakumeek gutxi gorabehera gizonek baino heren bat denbora gehiago ematen zuten etxeko eta zaintza-lanetan.



Pandemia iritsi zenean, etxeetako zaintza-ardurak ugaritu egin dira, eta konfinamendu-aldian, ez da beste inoren esku uzteko aukerarik egon:

Etheen % 24tan eskola-garaian dauden adingabeak bizi dira, eta kontziliazioaren erronka are gogorrago bati egin behar izan diote aurre.



Jardueretarako muga kronikoak dituzten EAEko biztanleen % 10en laguntzaren ardura ere EAEko etxe askok hartu behar izan dute beren gain.



Zaintzak berriro ere familiaren ardura bilakatzeak eragin asimetrikoa izan du eta bereziki emakumeei eragin die: zeregin batzuk hobeto banatu badira ere, bikoteetan lan-banaketa ez da orekatua izan, eta **guraso bakarreko familiek** zailtasun handiak izan dituzte.

Zaintza-lanek aitorpen publiko handia izan dute, eta jendartearen funtzionamendurako ezinbestekoak direla bistaratu da. Horrek zaintzen jasangarriagoa den eta erantzunkidetasun handiagoa duen antolakuntza soziala lortzeko aurrerapausoa ekar lezake.

Jendartea zaintzeaz arduratu direnen gehiengoa emakumeak izan dira; esparru soziosanitarioetako eta beste sektore ekonomiko giltzarri batzuetako langileetan duten pisuagatik, baina baita emakume horiek eta beste askok etxeetan egin dituzten doako zaintza-lanengatik ere.

Nork egiten zituen zaintza-lanak COVID-19aren aurretik? COVID-19aren aurretik eta lan-banaketa sexualaren ondorioz, nagusiki emakumeek egiten zituzten soldatapekoak ez diren EAEko zaintza-lanak. Nahiz eta soldatapeko lanean emakumeen presentzia handia izan eta etxeko gastuez arduratzen ziren bi pertsonak pisu esanguratsua izan, **ez soldatapeko zaintza-lanen zatirik handiena –gizonek baino askoz handiagoa– emakumeek egiten zuten.**

2018ko datuen arabera, emakumeek etxeko lanetan (garbiketa, erosketak, janaria prestatzen...) gizonek baino ordu eta 11 minutu gehiago ematen dituzte, eta etxeko besteen zaintzan ere (haurrak edo mendekotasuna duten helduak) gizonek baino 38 minutu gehiago ematen dituzte. Horrenbestez, **emakumeen parte-hartzea heren bat inguru handiagoa da**, eta desberdintasunak agerikoak dira bikote bateko bi pertsonak soldatapean lan egiten dutenean ere.



Iturria: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2018.

Oharra: Parte-hartzaileko batez besteko denboraren datua 16 urte edo gehiago dituztenek jarduera konketuak egiten ematen duten denborari dagokio, jarduera hori egiten duten pertsonak bakarrik aintzat hartuta. Parte-hartze tasak jarduera jakina egiten duten 16 urte edo gehiago dituztenen ehunekoa erakusten du.


Ikusi da batezbeste amek aitek baino denbora gehiago ematen dutela seme-alabak zaintzen, haiekin jolastan eta haiei etxerako lanekin laguntzen.



Iturria: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2018.

Oharra: Parte-hartzaileko batez besteko denboraren datua 16 urte edo gehiago dituztenek jarduera konketuak egiten ematen duten denborari dagokio, jarduera hori egiten duten pertsonak bakarrik aintzat hartuta. Parte-hartze tasak jarduera jakina egiten duten 16 urte edo gehiago dituztenen ehunekoa erakusten du.

Denboraren banaketa ez-parekideari gehitzen badiogu zaintzen ekonomia formalaren garapen urria, ikus daiteke lehendik ere krisiaren zaintza-arloko gizarte-antolakuntza ez zela oso jasangarria. **Familia askok kontziliazio-arazo handiak zituzten:** EAEn lan egiten dutenen % 30,2k zailtasun handiak dituzte seme-alaba adingabeen zaintza eta lana kontziliatzeko, eta % 37k mendekotasuna duten pertsonen zaintza lanarekin kontziliatzeko¹⁵.



Iturria: EUSTAT. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2018

Zer gertatu da konfinamenduan zehar? Aldaketa handiak gertatu al dira zaintza-lanen banaketan? Pandemiarekin batera, **etxeko lanen eta etxeko zaintza-lanen ardura igo egin da.** Ohiko kontziliazio-zailtasunez eta erantzunkidetasun faltaz gain:

- **Ikastetxeak itxi egin dituzte.** Ondorioz, eskola-garaiko adinean dauden haur eta nerabeek ezin izan dute eskolara joan eta familiarekin konfinatuta egon behar izan dute egunean 24 orduz eta astean zazpi egunez, osotara hiru hilabetez. Aldi horretan, familiek egin behar izan dute seme-alaben etxerako lanen jarraipena. EAEn¹⁶ **207.415 familia edo etxetan bizi da 16 urte baino gazteagoa den baten bat** (etxeen % 24tan). Etxe horien artean, 94.882tan 6 urteko haurrak baino gazteagoak daude (% 11), eta 52.576tan 2 urte baino gutxiagoko haurrak (% 6).
- **Eskola-ordutegitik kanpo kontziliazioa errazten duten zerbitzuak eten dira.** Familiek ez dute familien kontziliazioa errazten duten eskolaz kanpoko zerbitzurik edo aisialdi-jarduerarik ere izan, hala nola eskolaz kanpoko ekintzak, kirol-instalazioak, jangela-zerbitzua, kanpaldiak, ludotekak, etab.
- **Adinekoen, desgaitasunen bat dutenen edo beste behar sozial batzuk dituztenen arretarako zerbitzu publiko eta pribatuak eten edo aldatu dituzte.** EAeko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeek % 81ek, zeinak normalki zerbitzu horiek neurri handian ematen baitituzte, bertan behera utzi behar izan dituzte jardueretako batzuk (prestakuntza-ikastaroak, aisialdi-jarduerak, eskola-errefortzurako programak, atsedeen-programak, eguneko zentroak, zentro okupazionalak, etab.)¹⁷.

¹⁵ Iturria: EUSTAT. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2018

¹⁶ Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. Euskal Familia eta Etxeen Inkesta. 2015

¹⁷ Iturria: HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA. Covid-19ak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeetan izan duen eragina [online]. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia, 2020.

Laguntza-beharrak dituztenen kopurua askoz ere handiagoa bada ere, datu orientagarri moduan esan daiteke EAEko biztanleen % **9,7k oztoporen bat duela ohiko jarduerak modu iraunkorrean egiteko (erabat edo partzialki) edo laguntza behar duela, hau da, jardueraren muga kronikoren bat duela**¹⁸.

- **Etxeetako babes-sareak mugatu dira.** Konfinamenduak normalean etxeetako babes-sareen partaide diren horiek gertu ez izatea ekarri du (aitona-amonak, adiskideak, bizilagunak, etab.). 15 urtetik behekoen % 40,4 inguru senideek edo beste baten batek –ordansaririk gabeko baten batek, nagusiki aitona-amonak– zaintzen dituztela beren eskola-orduak amaitu ondoren gurasoen lanaldiak irauten duen bitartean¹⁹.
- **Kutsatutako pertsonak etxean bakartuta egon dira.** Pandemiaren aurrean hartutako neurririk garrantzitsuenetako bat kutsatuak eta sintoma larriak zituztenak etxe barruan isolatzea izan da, eta horrek etxeetan zaintza-lanak ugaritu ditu.

Birusaren aurkako neurrien eraginez, **zaintza-lanak berriz familiaren ardura** bilakatu izanak **eragin handia izan du emakumeen eta gizonen bizitzetan, baina lehendik ere bazen zaintza lanen banaketa desorekatuaren ondorioz, eragina asimetrikoa izan da, eta bereziki emakumeei eragin die.** Zaintza-lanen rola tradizionalki emakumeei esleitu izan zaie; beraz, krisiaren ondorioz, familia-esparruko erantzule nagusietako bilakatu dira.

Konfinamenduan zehar egindako ikerketa²⁰ batzuen aurretiazko emaitzek adierazten dute **balitekeela konfinamendu-aldian lanen banaketa zertxobait aldatu izana**, eta gizonen lehen egiten ez zituzten lanak egiteko asmo handiagoa erakutsi dutela (garbigailua ipini, otorduak prestatu, erosketak egin, haurrekin jolasteko orduak banatu...). **Hala ere**, banaketaren aldaketa ez dago familietan kudeatu behar izan den lan-kargaren igoerarekin alderatzerik.

Egoera desberdina da familia-egituraren eta familia kideen lan-jardueraren arabera, baina ikusi da bikoteko bi kideek soldatapeko lana izaten jarraitu badute telelanaren bidez, **banaketa desorekatuak jarraitu duela**, eta emakumeek karga emozional eta estres handiagoa pairatzen dituztela.

Telelanak rol esanguratsua izan duen testuingurua izanagatik ere, badirudi beste behin ere emakumeek egin diotela uko lanari familiako ongizatearen izenean²¹:

- Nagusiki amak arduratu dira eguna antolatzeaz eta kudeatzeaz, eta haiek egin diete jarraipena eskola-adinean dauden seme-alaben ikasketei.
- Haietako asko zaintza-lanak eta telelana uztartzen ahalegindu dira, eta bikotekideari lan egitea –aurrez aurre edo telelanaren bidez– ahalbidetu diote haiek ordutegi zurrunka zituztelako edo etenik egin ezin zutelako.
- Ohikoa da emakumeotako batzuek lotarako ordua atzeratu izana edo familiakideak baino lehenago jaiki izana kontzentrazio-uneak bilatzeko. Maiz egun osoan aldi berean lanean eta zaintza-lanetan ari zirela sentitu dute, eta lanaldi amaigabeak zituztela.

¹⁸ Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA Euskadiko Osasun Inkesta. 2018

¹⁹ Iturria: EUSTAT. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta. 2018

²⁰ FARRÉ, LIDIA eta GONZÁLEZ, LIBERTAD. *¿Quién se encarga de las tareas domésticas durante el confinamiento? Covid-19, mercado de trabajo y uso del tiempo en el hogar* [online]. Universitat Pompeu Fabra, 2020.

²¹ BENLLOCH, CRISTINA eta AGUADO BLOISE, EMPAR. *Teletrabajo y conciliación: el stress se ceba con las mujeres* [online]. The Conversation, 2020.

Zer familia motak izan ditzake zailtasun bereziak? Familiek behar espezifikoak eta desberdinak izan ditzakete heziketari dagokionez, eta behar horiei erantzunik ematen ez bazaie, aukera-desberdintasunak sortuko dira. Gauzak horrela, familia gurasobakarrei erreparatzea dagokigu, zeinak gehien-gehienean emakumeak baitituzte buru (% 87) ²², eta, era berean, baita familia ugarien egoerari ere.

EAEn, heldu bakarrak eta hark bere kargupean dituen ondorengoek osatutako familia gurasobakarrak (bikotekideetako bat hil delako, banaketa edo dibortzioa egon delako edo familia ez delako bikote-harreman baten bidez sortu) 16 urtetik beherakoak dituzten familia guztien artean % 13,3 dira ²³.

Zer efektu aurreikus daitezke epe ertain edo luzera? Zer aukera aprobetxa daitezke? Krisian zehar agerian gelditu da etxeek zer-nolako zailtasunak izan dituzten zaintza-lanei lotutako lan-karga osoa beren kasara egiteko, eta era berean, **agerian gelditu da zaintza-lanak ezinbestekoak direla jendarteak funtziona dezan**. Horrela, zaintza auzi indibidual batetik harago, auzi sozial modura agertu zaigu, eta ikusi da hari aurre egiteko beharrezkoa dela pertsona guztien zein entitate pribatuen eta instituzio publikoen erantzunkidetasuna.

Ikastetxeak itxi izana egoera-faktore eztabaiaezina da, zeinak zaintza-lanak besteen eskuetan uztea ekidin baitu eta inoiz baino irmoago jarri baitu familien aurrean kontziliazioaren auzia. Hain muturrekoa den egoera bati aurre egin beharra aukera ere izan zitekeen bikote batzuen kasuan, beren adostasunak egokitzea eta bizitzaren eta soldatapeko lanaren artean zuten oreka berraztertzea bultzatu dituen neurrian.

Halaber, epe ertainera ikastetxeetako ohiko dinamikan egon daitezkeen balizko aldaketen inguruko ziurgabetasuna handia da, baita oraindik ere, eta hortaz, hemendik aurrera ere 16 urtetik beherakoak dituzten etxeetan areagotu egin daitezke kontziliazio-tentsioak. Tentsio horiek taxuz konpontzen ez badira haurrei eta nerabeei, familia-harremanei eta bereziki etxean eta etxetik kanpo lan egiten duten emakumeei eragingo diete.

Gure jendartean genero-arau tradizionalak gailentzen dira, eta ondorioz, emakumeak zaintzaile izatea eta gizonak sostengatzaile izatea espero da. Gainera, epe ertain eta luzera soldatarik gabeko zaintza-lanak ugaritzea aurreikusten da; hori dela eta, badirudi handia dela emakumeek lan-merkatutik ateratzera eta etxera itzultzera bultzatzen dituen arriskua.

Datu batzuek argi erakusten dute kontziliazio-arazoak konpontzeko formula moduan eszedentzia hartzen dutenen gehienak emakumeak direla. 2017an, 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketaren eta 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia-espedienteen % 91,7 emakumeenak izan ziren²⁴.

Beste alde batetik, testuinguruak lehen halakorik egiten ez zuten gizon ugari etxeko lanetara eta zaintza-lanetara gerturatzen lagundu du; horrek aukera sor dezake haietako batzuek jarrera alda dezaten jabetuta harmonian, ongizatean, autoestimuan eta norberaren bizitza emozionalean, bikote-bizitzan eta seme-alabenean zer mesede izan ditzakeen.

Horrekin batera, pandemiaren eraginez hain azkar hedatu den telelanak aldatu egin dezake emakumeek eta gizonek lan-bizitza, bizitza-pertsonala eta familia-bizitza orekatzeko duten modua. Hala ere, ez dago pentsatzerik telelanak bere horretan arazoa konponduko duenik.

²²Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. Euskal Familia eta Etxeen Inkesta. 2015

²³ Idem

²⁴ Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. 2017

Izatekotan, telelanaren ezagutza eta erregulazioan sakontzeko, kontuan hartu behar genituzke kontu horiek denak, ez dadin telelana emakumeentzat «amarru» bilakatu.

Etorkizun hurbilean soldatapekoa ez den lana hobeto bana dadin, **beharrezkoa izango da zaintzaren inguruko jokabideetan eta gizarte-antolakuntzan aldaketa iraunkorrak eragitea**, pertsona guztiok aldi berean sostengatzaile eta zaintzaile izan gaitzen. Aritu batzuen arabera, esparru arauemaileak sustatu behar lituzke aldaketa horiek. Familiez gain, enpresek eta administrazio publikoek ere erantzunkide izan behar lukete.

Erronka nagusia da koiuntura-mailan dagoen hori egitura-mailara igarotzea, eta hala, aldaketa biztanleriaren sektore zabalenetara iristea, familiakide guztien ongizatean oinarritutako harreman bidezkoagoak sortzeko.

GOMENDIOAK: *Ordaindu gabeko zaintza-lanetan duen eragina*

 Neurriak hartzea etxeetan zein etxeetatik kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduerak sozialki eta ekonomikoki aitortzeko, hala zaintza eta bizitzaren jasagarritasuna erdigunean jartzen dituen ekonomia- eta gizarte-ereduetara eraldatzeko.

 Orain eta pandemia amaitzen denean pausoak ematea erantzunkidetasuna lortzeko bidean, bizitzan zehar guztiok behar ditugun zaintza-lan guztiak ziurtatzeko –arreta berezia emanda zaurgarritasun handiagoko bizi-etapetan edo egoeretan (haurtzaroa, zahartzaroa, gaixotasun-aldiak...) daudenei– .

- Arretarako eta haur eta nerabeen babeserako zerbitzu publikoak sendotzea.
- Adinekoen, desgaitasuna dutenen, gaixotasun mentalen bat edo beste babes motaren bat behar dutenen arreta-zerbitzuak indartzea eta bermatzea hartzen diren neurriak kalitatezko zaintza-zerbitzu bat konfiguratzera eta koordinazio soziosanitario egoki bat lortzera daudela bideratuta (langileen, senideen eta erabiltzaileen behar eta proposamenak aintzat hartuta).
- Enpresen ingurunean kontziliazio arduratsua ahalbidetzen duten antolakuntza-ereduetara hurbiltzea.
- Etxeetako zaintzen karga eta etxeko lanen banaketa berdinzalea indartzea, berdintasunean aritzen diren sostengatzaile eta zaintzailez osatutako jendarte baten eraikuntzara begira (horretarako, familietan kultura berdinzaleagoa sustatu behar da eta mutilek eta gizonek parte-hartze handiagoa izan behar dute zeregin horietan).
- Aurrerapausoak ematea autonomia eta zaintza-arduraren zein norberaren eta ingurukoen zaintzaren etikan, prebentzio-, ardura- eta elkartasun-ariketa moduan.

 Institutuzioetako baliabideak eta babes-sare komunitarioak konbinatzen dituzten alternatibak ematea eta dibertsifikatzea seme-alabak dituzten familiei kontziliazioan laguntzeko, bereziki hezkuntza-sistemaren jarduerak mugak dituen bitartean (Adibidez: bizilagunen babes-sareak, etxez etxeko zaintza publikoa, errendimendu akademikoan zailtasunak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko hezitzaileak, ezarritako osasun-arauak betetzen dituzten inguruetan antolatutako prestakuntza-saioak, etab.)

 Bermatzea lanaren eta familiaren arteko kontziliaziora bideratutako neurriek aintzat hartzen dituztela kontziliaziorako zailtasun gehien dituzten kolektiboen beharrak (familia gurasobakarrak, ugariak...) eta aplikatu daitezkeela telelana kontziliatzeko ere.

 Azterlanak sustatzea krisian zehar zaintzaren zama familietan zenbat igo den eta nola banatzen den neurtzeko eta horrek pertsonen bizi-baldintzetan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean zer ondorio dituen.

Ordaindutako lanaren merkatuan duen eragina


BEREZIKI FEMINIZATUTAKO JARDUERA-ADARRAK

Espainia (2019ko IV hiruhilekoa)

Jarduera-adarrean lan egiten dutenen emakumeen %

"TIPO DE SECTOR"

DURANTE EL ESTADO DE ALARMA



"Oso feminizatuta dauden sektoreetako batzuk, alarma-egoeran zehar «funtsezkotzat» hartu direnak, lehenago ia ikusezinak ziren eta lan-prekarietate altua zuten.

"Pandemia iritsi aurretik, lau emakumetatik batek berrogeialdian derrigor eten behar izan den sektorean egiten zuen lan (merkataritzan, ostalaritzan...) eta lanpostua galdu du behin-behinean edo behin betiko.

"Kalkulatzen da etxeko langileen erdiak ezingo duela inongo prestaziorik jasoko legez kanpoko egoeran egoteagatik.

"2020ko martxoaren 5aren eta ekainaren 18aren artean, osotara aldi baterako

26.746 lan erregulazio-espeditente
(ABEEE)

erregistratu ziren, eta guztira 199.899 pertsonari eragin zioten:

%42,4
emakumezkoak ziren.

"Telelanak lanaren galera arindu du sektore batzuetan, eta konfinamendu-aldian kasu jakinetan zaintza-lanen kontziliazioa ahalbidetu badu ere, epe luzera arriskuak dakarzkie emakumeei.

Erantzunkidetasun sozialik ez badago zaintza-lanen banaketarako, emakumeen ongizatea eta eraginkortasuna kinkan egongo dira, direnak eta ez direnak egin beharko dituztelako etxeko eta etxetik kanpoko lan-eskakizunei erantzuteko. Oztopo horien eraginez, emakumeotako askok lan-merkatua utzi dezakete, eta horrek, era berean, lan-garapenerako aukerak gutxitzen dizkie eta autonomia ekonomikoa mugatzen die.

Pandemiatik eratorritako krisiak erabat eragin dio lan-merkatuari. Hala ere, dagoeneko azaleratu diren epe laburreko efektuak zein gerorako aurreikusten diren efektuak desberdinak izango dira emakumeengan eta gizonengan, alor honetan lehendik ere baziren desberdintasunei jarraikiz.

COVID-19aren aurretik, zer leku zuten emakumeek merkatu horretan? Oro har, jarduera-²⁵ eta enplegu-tasa altuagoak zituzten gizonezkoek: 2019an, 61,1eko jarduera-tasa zuten eta emakumeek 52,2koa, eta enplegu-tasa 72,2koa zuten gizonen eta 64,7 puntukoa emakumeek. Desberdintasuna handiagoa zen kargupeko seme-alabak dauden kasuetan: kargupeko 2 seme-alaba edo gehiago zituzten gizonezkoen enplegu-tasa 86,8koa da eta emakumeena 70,7koa. Orobat, gizonen eta emakumeen presentzia sektore eta enplegu-maila desberdinetan ez zen parekidea eta desberdintasun handiak zeuden haien lan-baldintzetan ere.

2019an EAEn emakume landunen erdia baino gehiago sektore hauetan zebilen: osasuna, gizarte-zerbitzuak, txikizkako merkatua, hezkuntza eta ostalaritza²⁶.

JARDUERA-ADARRA (EAE 2019)	% Landun gizonak	% Landun emakumeak
Nekazaritza	1,4	0,7
Erauzketa-industria; energia elektrikoaren, gasaren, baporearen eta aire girotuaren hornidura; ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	1,5	0,6
Manufaktura-industria	29,3	8,5
Eraikuntza	9,7	1,2
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza	24,1	25,8
Informazioa eta komunikazioak	3,4	2,3
Finantza- eta aseguru-jarduerak	1,7	2,6
Higiezinekin lotutako jarduerak	0,5	0,6
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	8,8	11,7
Administrazio Publikoa eta defentsa, derrigorrezko Gizarte Segurantzak; hezkuntza; osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	15,5	34,1
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak; etxeetako jarduerak, etxeoko langileen enplegatzaile gisa eta norberaren erabilerarako ondasun eta zerbitzuen ekoizle gisa; lurraldetik kanpoko erakunde eta entitateetako jarduerak; beste zerbitzu batzuk	4,0	11,9
Okupatutako biztanleria guztira	100,0	100,0

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019.

Oharra: Letra lodiz nabarmendu ditugu adar bakoitzean emakumeen ehunekoa bereziki altua duten jarduerak.

²⁵ Iturria: EUSTAT. Herritarren inkesta jarduerarekin lotuta. 2019.

²⁶ Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019.

EAEn zuzendaritza- edo gerentzia-postuetan zeuden gizonen ehunekoa²⁷ emakumeena baino handiagoa zen; emakumeek, aldiz, ordezkaritza handiegia zuten administrazio-postuetan, zerbitzu pertsonaletako lanetan eta saltzaileen artean.

JARDUERA-ADARRA (EAE 2019)	Gizonak %	Emakumeak %
Zuzendaritza- eta gerentzia-postuak »	4,8	2,9
Langile tekniko eta zientifikoak eta intelektual profesionalak »	16,1	26,3
Langile teknikoak; laguntzako profesionalak »	14,5	9,4
Kontulariak, administrazio-langileak eta bulegoko beste langile batzuk »	6,8	16,3
Otordu-zerbitzuetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes-zerbitzuetako langileak eta saltzaileak »	13,0	28,2
Nekazaritza-, abeltzaintza-, baso- eta arrantza-sektoreetako langile kualifikatuak »	1,9	0,6
Eskulangileak eta manufaktura-industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (instalazioen eta makinaren operadoreak izan ezik) »	20,7	1,3
Instalazioen eta makinaren operadoreak eta muntatzaileak »	16,9	3,3
Funtsezko lanbideak »	5,1	11,7
Lanbide militarrik »	0,1	
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019.

Pandemiaren aurreko datuek adierazten dute emakumeek askoz proportzio handiagoan egiten zutela lan lanaldi erdian gizonen baino (% 27,2 emakumeek; % 7 gizonen), eta aldi baterako kontratazioa ohikoagoa zela emakumeen artean (% 26,5; gizonen artean % 22)²⁸. Horren arrazoiak, neurri handi batean, gure lan-merkatuan lehendik ere bazen segregazio horizontala eta bertikala da: emakumeek batez beste gizonen baino % 24,3ko ordainsari baxuagoa jasotzen zuten²⁹.

Zer eragin izan da berehalakoena? Zeri eman behar genioke arreta? Alarma-egoeran zehar, lan-jardueraren hiru sektore edo adar bereizi dituzte:

- Sektore batzuk «funtsezkotzat» jo dira: ez dituzte inoiz eten eta baliteke epe laburrera sektore horietako lan-eskariak gora egitea neurri batean.
- Beste sektore batzuk, hain justu elkarrekintza soziala ohikoa zutenak, «berrogeialdian» jarri dituzte birusaren hedapena gelditzeko xedez, eta hainbat astez jarduera eten behar izan dute.
- Gainerako sektoreetako jardueretan egoera aldakorra izan da, besteak beste honako faktore hauek eraginda: telelanerako aukerarik edo distantzia sozialaren arauak betetzeko aukerarik ba ote zuten, eskariaren aldakuntza zein izan den edo hornigaien jarraikortasuna posible ote zen.

²⁷ Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019.

²⁸ Idem

²⁹ Iturria: EMAKUNDE. *Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan* Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2018.

Alde batetik, azpimarratzekoa da **osasunerako eta pertsonen bizitzaren sostengurako funtsezkotzat jo diren jardueren artean daudela** nekazaritza eta arrantza, elikagaien industria, salgaien garraioa, energia-hornidura, hondakinen bilketa, informazio- eta komunikazio-zerbitzuak, finantza-zerbitzuak... **Eta baita nagusiki emakumeek egiten dituzten zaintzari lotutako lan-jarduera asko ere:** osasun-arretari lotutakoak, botiketakoak, egoitzetako laguntza, etxez etxeko laguntza, garbiketa-zerbitzuak, elikagaien txikizkako merkataritza, etab.

Zifrek erakusten dute nagusiki emakumeek egin dituztela pandemiari aurre egiteko zeregin gehienak, osasun-arloari eta arlo soziosanitarioari zuzenean lotutako lanpostuetan gehiengo izateaz gain, etxeetako zaintza-lanak ere beren gain hartu dituzte eta. **Paradoxikoki, lanpostu horietako asko lehenago ikusezinak ziren ia, prestigio baxua zuten eta baldintza prekarizatueta** egiten ziren (soldata baxuak, gaitz, behin-behinekotasuna...).

Profesional horietako askok, hala nola erizainek, erizaintzako laguntzaileek, garbitzaileek, zelariek eta administrazio-laguntzaileek protokolorik gabe ekin behar izan diote osasun-larrialdia, ezagutza eta babes egokirik izan gabe. Orobat, beren jarduerari ohi baino intentsitate handiagoan egin behar izan dute eta arrisku psikosozial handiagoei aurre egin; aldi berean, etxean ordainsaririk gabeko lanen karga handitu zaie. Ildo beretik, birusarekiko esposizio handiagoa izan dute eta horrek etxeetako kutsatzeko arriskua ere areagotu die.

Adinekoen egoitzetan lan egiten duten emakumeek aipamen berezia behar dute, gaitzaren bertan eman baitu kolperik gogorrena (birusak eragindako hildakoen % 21 inguru egoitza horietan gertatu da)³⁰. Espainian, sektore horretan lan egiten duten 10etik 8 baino gehiago emakumezkoak dira³¹. Osasun-krisia lehertu zenean, kontu ugari zegoen mendekoaren sistema hobetzeko, besteren artean estaldura eta lan-ratioak, prestakuntza-eskaintzak, lan-baldintzak, etab.

Beste alde batetik, emakumeek **presentzia esanguratsua izan dute berrogeialdian egon diren sektore batzuetan** (turismoari, ostalaritzari eta txikizkako merkataritzari lotutako jardueretan, nagusiki), eta **aldi baterako edo behin betiko lana galtzeko aukera gehiago dituzte**. Lanaren Nazioarteko Erakundeak dio COVID-19ak emakumeengan duen **eragin larriak** zerikusia duela krisiak kaltetutako sektore ekonomiko batzuetan (hala nola ostalaritzan, otordu-zerbitzuetan, eta manufaktura-industrian) emakumeek gehiegizko ordezkaritza izatearekin. Mundu-mailan, enplegudun emakumeen artean **ia 510 milioi (% 40)** lau sektore kaltetuenetan egiten du lan; gizonen artean, zifra hori % 36,6koa da³². Zenbatesten da EAEn pandemiaren aurretik emakume landunen % **26k egiten zuela lan berrogeialdiaren lehenengo asteetan jarduna derrigor eten behar izan duen eta suspertze mantsoagoa izango duen jardueraren batean** (gizonen artean % 24 inguruk).³³

³⁰ Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA Koronabirusaren (COVID-19) egoera epidemiologikoa Euskadin. 2020ko ekainaren 12ko Aldizkaria

³¹ EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019ko IV hiruhilekoa.

³²Iturria: LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN BEHATOKIA. *La COVID-19 y el mundo del trabajo*. Bosgarren edizioa. *Estimaciones actualizadas y análisis* [online]. Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2020.

³³ Ehunekoak orientagarriak dira eta «handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza» jarduerari adarra kontuan hartuta kalkulatu da, iturri hau erabiliz: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019

Lanbide³⁴ kontratazioen inguruan egindako txostenaren arabera, 2020ko apirilean kontratazioa % 52,3 jaitsi zen aurreko hilaren aldean, eta % 63,5 aurreko urtearen aldean. Jaitsiera jarduera ekonomiko guztietan gertatu bazen ere, ostalaritza kolpatu zuen gogorren. Gizonen artean 4.965 kontratu gutxiago egin ziren (-% 96,4), eta emakumeen artean aurreko urteko hilabete berean baino 8.351 gutxiago (-% 98).

Nabarmentzekoa da **etxeko langileen egoera**, horik historikoki prekarietate eta ziurtasun falta handiko baldintzak izan baitituzte, eta ikusezinak eta gutxietsiak izan baitira. Batzuek beren lanpostuan konfinatu behar izan dute familiak kutsatzeko beldurrez, eta beste batzuk une batetik bestera kaleratu dituzte. Kalkulatzen da EAEn 67.000 etxe baino gehiagok dutela etxeko zerbitzuren bat (eta horien artean % 9k etxean bizi den langileren bat dute). Hala ere, 2017an Gizarte Segurantzaren sektore horretan afiliatutako 29.683 langileren artean, % 95,6 emakumeak dira eta % 38 migratzaileak³⁵. Horregatik, langile horientzat ezohiko subsidio bat onartu bada ere, kalkulatzen da gutxienez erdiak ezingo duela laguntza hori eta prestazioa bera jaso, egoera irregularrean egoteagatik.

Halaber, autonomo diharduten emakumeek ere aipamen berezia behar dute; horien artean askok enpresa txikiak, lekuko merkataritzako establezimenduak edo familia-negozioak gidatzen dituzte, eta etxe askotan etxeko diru-iturri bakarra dira. EAEn aurtengo apirileko azken astean egindako galdetegi³⁶ aplikatu baten datuen arabera, emakumeen % 4 inguruk eta gizonen % 2 inguruk itxi egin behar izan du negozioa alarma-egoeran.

EAE (2019ko IV hiruhilekoa) BEREZIKI FEMINIZATUTAKO JARDUEREN ADARRAK	Emakumeen % jarduera- adarrean lan egiten duten guztiekiko	«Sektore mota» alarma- egoeran zehar
Osasun-jarduerak	» 72,6	Funtsezkoa
Egoitzetako laguntza	» 83,9	Funtsezkoa
Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuak	» 85,5	Funtsezkoa
Eraikuntza-zerbitzuak eta lorezaintza-jarduerak (garbiketa barne)	» 61,8	Funtsezkoa
Txikizkako merkataritza (ibilgailu motordunen eta motoen konponketa izan ezik)	» 60,4	berrogeialdia
Ostalaritza: ostatu-zerbitzuak	» 58,5	berrogeialdia
Ostalaritza: otordu- eta edari-zerbitzuak	» 51,7	berrogeialdia
Etxeetako jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile gisa	» 86,4	Berrogeialdia


Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019ko IV hiruhilekoa.

³⁴ Iturria: LANBIDE. Kontratuen erregistroa. 2020.

³⁵ Iturria: CIVERSITY IKERKUNTZA-TALDEA *Diagnóstico de situación de las personas trabajadoras del hogar en la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las necesidades a las que dan cobertura*. Leioa: UPV/EHU. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. 2020.

³⁶ EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA- EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA *Euskadiko herritarrak COVID-19aren aurrean* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2020.

Gainerako sektore «ez funtsezkoek» berrogeialdian jarduna eteteko betebeharririk izan ez badute ere, **telelana posible ez zenean asko ugaritu dira aldi baterako enplegu erregulazio espedienteak (ABEEE).**



EAE (2020ko martxoaren 5 eta ekainaren 18 artean)

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA SAILA Eusko Jaurlaritzari eskatutako Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (ABEEE), koronabirusaren pandemiagatik Euskadik bizi duen osasun-larrialdi egoera dela-eta. 2020ko ekaina

Koronabirusaren pandemiagatik Euskadik bizi duen osasun-larrialdi egoera dela-eta Eusko Jaurlaritzari eskatutako Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientei (ABEEE) buruzko azken datuek adierazten dutenez, **2020ko martxoaren 5aren eta ekainaren 18aren artean, guztira 26.746 espediente erregistratu ziren; 199.899 pertsona osotara, eta horien artean % 42,4 emakumeak³⁷.**

Lanbide³⁸ erregistratutako azken langabezia-datuen arabera, 2020ko martxoaren, apirilaren eta maiatzaren artean, osasun-alarimak eragindako egoeraren ondorioz, EAEn enplegu-eskatzaileak 24.476 gehiago izan dira; emakumeen % 17,3 izan dira eta gizonen % 25,4. Aurreko hilabetearen aldean, martxoan igoera hori % 9,36koa izan da, apirilean % 8,13koa eta maiatzean % 2,2koa. **Emakumeen langabezia-tasa 15 puntukoa izan zen 2020ko maiatzean; gizonena, aldiz, 11,6koa**



Iturria: LANBIDE. 2020ko martxoan, apirilean eta maiatzean erregistratutako langabezia.

³⁷Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA SAILA Koronabirusaren pandemiagatik Euskadik bizi duen osasun-larrialdiaren ondorioz Eusko Jaurlaritzak eskatutako Aldi Baterako Lan Erregulazio Espedienteak (ABEEE). 2020.

³⁸Iturria: LANBIDE. 2020ko maiatzean erregistratutako langabezia.

Zer rol jokatu du telelanak? Jarduera-adarraren eta lanbidearen arabera emakumeen eta gizonen pisua aldatzen den neurrian, telelanari ere eragiten dio genero-aldagaiak. Emakumeen presentzia handiagoa duten sektoreek potentzial handiagoa dute telelana egiteko (hezkuntza-sektorea) gizonak gailentzen diren sektoreek baino (manufaktura-industria eta eraikuntza). Orobat, zuzendaritza- eta gerentzia-postuetan daudenek errazago egin dezakete telelana (emakumeek presentzia urriagoa dute postu horietan), eta ondoren, langile teknikoak eta zientifikoak eta profesional zientifikoak, kontulariak, administrazio-langileak eta bulegoko beste langile batzuk (lanpostu horietan emakumeen presentzia handiagoa da) daude.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak³⁹ apirilaren amaieran egindako galdetegia orientagarri moduan hartuta, azpimarratzekoa da EAEn konfinamendu-aldiaren aurretik lanean ari ziren emakumeen % 31k eta gizonen % 23k telelana egiteko aukera izan duela berrogeialdian (estatuko azterlan batzuek kalkulatzeko tasak % 14 eta % 11 ingurukoak izan daitezkeela, hurrenez hurren)⁴⁰.

Etiket lan egiteko aukerak positiboki eragin du epe laburrera enplegua ez galtzeko, baina ez da ahaztu behar testuinguru ezezagun eta konplexu batean gertatu dela telelana. Batetik, era horretan lan egiten dutenak egoera berri batean jarri ditu, eta ondorioz, etxean lan-espazioak inprobisatu dituzte (maiz bikotekidearekin edo seme-alabekin ordenagailua partekatuz, etab.): EAEn krisiaren aurretik etiketik lan egiten zuten langileen ehunekoa % 4,3koa zen.⁴¹

Bestetik, haur, nerabe eta oro har mendekotasuna zutenentzako zerbitzu publikoak ixtearekin batera, zaintzari lotutako soldatapeko eta ez-soldatapeko lanak etxebizitzaren espazio fisikoan gauzatu dira. Bien arteko bereizketa formala desagertu da, eta maiz, espazioaz gain denboran ere bi lan horiek nahasian gertatu dira.

Egia da telelanak malgutasuna ematen duela familia eta enplegua uztartzeko, baina aldi berean emakumeentzako arriskuak ere badakartza eta haiei etxeko lanen karga handia ekar dakie, nagusiki seme-alaben zaintzari dagokionez. Lehen ere esan dugunez, etxeko lanen banaketan abiapuntuan desparekidetasuna zegoen, eta horren ondorioz, emakumeek presio handiagoa izan dute telelana familiaren zaintzarekin eta etxeko lanekin uztartzeko.

Edonola ere, balioestekoa da larrialdi-egoerak telematikoki lan egiteko aukera berri bat sortu duela eta enpresei eta administrazioei bide malguagoak arakatzeko aukera eman diela, hain justu, aurrez aurreko lanaren hainbesteko premiarik ez duten bide batzuk. Dena den, garrantzitsua litzateke haren erregulazioan aurrerapausoak egitea eta bermatzea horrek emakumei ez diela atzerapausorik eragiten.

³⁹ Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA- EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA *Euskadiko herritarrek COVID-19aren aurrean* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2020.

⁴⁰ Iturria: HUPKAU, CLAUDIA eta VICTORIA, CARLOS. *Covid-19 y desigualdad de género en España* [online]. EsadeEcPol Insight #8, 2020.

⁴¹ Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2019.

Zer iragar daiteke epe ertain edo luzerako? Zer arriskuren aurrean gaude?

Pandemiak lan-jarduera eta oro har ekonomia puskaz murriztea ekarri du. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailburuak datoen hilabeteetarako aurreikuspenak egin ditu ⁴²: Euskadiko Barne Produktu Gordina (BPG) % 8,7 jaitsiko da aurten eta enpleguak % 7 egingo du behera (68.000 lanpostu galduko dira).

Ekonomia-jardueraren buelta erritmo desberdinetan gerta daiteke sektorearen arabera, eta emakume eta gizon landunen artean eragin desberdina izan dezake. Gauzak horrela, hezkuntzak, osasun-arloak eta administrazio publikoak lehengo plantillekin jarraituko dute (emakumeen ehuneko handiak dituzte), baina ez dago hain argi emakume-bolumen handia kontratatzen duten beste sektoreetan gauza bera gertatuko denik, alegia, merkataritzak, ostalaritzak edo etxeetako jardueren sektoreak, besteak beste, nola jokatuko duten.

Kontrara, gizonezko gehiago dituzten sektoreak (industria, eraikuntza, garraioa, handizkako merkataritza...) epe laburrean jarduera normalizatuagora itzuliko direla aurreikusten da, 2008ko krisian gertatu zenaren kontrara, baina telelanerako aukera gutxiago dituztela kontuan hartu behar da.

Krisi ekonomikoak kaltetutako sektore batzuetan jarduera jaitsi izanaren ondorioz, **emakumeak lan-merkatutik ateratzea beste aukerarik ez dutela senti dezakete**, eta gainera, beste faktore batzuk izango lituzkete kontran: oraindik indarra duten genero-arau tradizionalak (garrantzitsuagotzat jotzen da gizonak lan egitea emakumeek baino) eta soldata-arrakala (familiatan garrantzitsuagotzat jotzen da gizonaren lana, emakumeek batez beste gutxiago irabazten dutelako).

Orobat, **zaintza-lanetarako erantzunkidetasun sozialik ez badago, etxean eta etxetik kanpoko lan-eskakizunei erantzuteko emakume batzuek direnak eta ez direnak egin beharko dituzte, eta kolokan jarriko dituzte beren ongizatea eta eraginkortasuna**. Egoera arintzeko, baliteke jardunaldi-murrizketa eskatzea edo lana aldi baterako uztea. **Horrek laneratzeko, garapenerako eta lan-progresiorako aukerak murriztuko lizkieke, eta beren autonomia ekonomikoa mugatuko luke.**

⁴² Iturria: OGASUN ETA EKONOMIA SAILA- EUSKO JAURLARITZA *Eusko Jaurlaritzak Euskadiko BPGd-a jaistea aurreikusten du* [online]. <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/62076-gobierno-vasco-estima-caida-del-pib-euskadi-para-2020-del-siendo-crecimiento-previsto-2021-del> [Kontsulta: 2020ko ekainaren 22a].

GOMENDIOAK: *Ordaindutako lanaren merkatuan duen eragina*

Genero-ikuspegia txertatzea instituzio-maila guztietan sustatzen den politika ekonomiko eta fiskaletan eta enplegua sustatzen dutenetan, hala emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrerapausoak egiteko, ikusita emakumeek lan-esparruan duten presentzia txikiagoa eta prekarioagoa dela.

Krisiak bereziki gogor kolpatu dituen ekonomia-sektoreetan neurriak hartzea, hala nola turismoan, ostalaritzan, gertuko merkataritzan, kulturean, etxeko langileen alorrean, etab.

Osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta hezkuntzan indartsua den sektore publikoa duen kalitatezko asistentzia-sistema baten alde apustu egitea, bizitzaren sostengu hobea ahalbidetzen duena, eta, aldi berean, emakumeentzako eragin positiboa duten kalitatezko enplegu-nitxoak eskaintzen dituen.

Neurri espezifikoak hartzea ekonomiaren sektore ez-formaletan lan egiten dutenei eragiten dieten COVID-19aren efektuei aurre egiteko, emakumeen berariazko beharrak kontuan hartuta betiere, bereziki gehiengoaren diren sektore horietan, adibidez, etxeko langileen kasuan. Adibidez, dekretatu diren edo hemendik aurrera dekretatuko diren araubide orokorreko langileen neurri eta prestazioak aplikatzea etxeko lanen sektoreko emakumeen Gizarte-segurantzaren araubide bereziari.

Emakumeen kalitatezko enplegua sustatzea, osasun-, gizarte- eta hezkuntza-sektore publikoak indartuta.

Erantzunkidetasunezko kontziliazioa indartzeko proposamenak berraztertzea eta bide berriak arakatzea emakumeek lan-merkatuan gehiago iraun dezaten eta autonomia ekonomiko handiagoa izan dezaten. Lan-baldintzak berrantolatzeko neurriak hartzea, bereziki ordutegietako baldintzei begirakoak, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzeko (adibide moduan: ordutegien arrazionalizazioa kontuan hartuz, laneguna trinkotuz...).

Telelana genero-ikuspegia erabiliz erregulatzea, langile guztiak errespetatzen dituen tresna izan dadin, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzen dituen eta garapen profesionala berdintasunez egitea ahalbidetzen duena.

Lan-esparruan hartutako neurriak ebaluatzea eta haien jarraipena egitea, arreta berezia emanda sektore feminizatuari eta zaintza-lanetakoei, eta lana dutenen eta ez dutenetan dauden bariazioei, lan-baldintzei eta krisiaren inpaktu psikosozialei erantzutea. Hartu diren neurriak sektore feminizatuenetara iristen direla eta emakumeen langabezia-tasak txikitzen laguntzen dutela bermatu behar da.

Emakumeen aurkako indarkerian duen eragina

“ Haien erasotzaileekin bizi diren emakume eta haur askorentzat etxea da egoteko lekurik arriskutsuena. 2019an EAEn

3.098

emakume erasotu zituzten beren bikotekideek edo bikotekide ohiek eta beste

899

bere familia-inguruneko beste gizonezkoren batek.

“ COVID-19aren zabalpenari eusteko neurrien ondorioz, erasotzaileekin denbora asko igaro behar izan dute estres-maila altuko testuinguru batean, eta laguntza eskatzeko ez dute ia aukerarik izan.

▼
Ertzaintzak erregistratutako salaketa-kopurua % 25,5 jaitsi da



%25,5

▼
Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzuaren (SATEVI) esku-hartzeak % 10,5 egin dute gora.



%10,5

“ Pandemiaren ondoren, erasotzaileek boterea galdu izanaren pertzepzioa izan dezakete, eta horrek indarkeria areagotu dezake. Era berean, emakumeek autonomia ekonomikoa galtzeak indarkeria-egoeretatik irtetea zaildu dezake.


“ Aurreikusten denez, bazterketa prozesu konplexuetan behin baino gehiagotan erasotutako biktimen kasuak ere gora egin dezake.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzat bizitza ez zen segurua COVID-19a baino lehen, eta ez-segurua izaten jarraituko du pandemia-garaia igaro ondoren ere. Konfinamenduarekin eta mugikortasun-aldaketekin lotutako neurriek birusaren hedapena kontrolatzea ahalbidetu dute, baina arriskuan jarri du erasotzailearekin bizi diren emakumeen bizitza, osasuna eta segurtasuna. Emakume eta haur askok **etxea dute egon daitezkeen lekurik arriskutsuena**.

Zein zen egoera krisiaren aurretik? Emakumeen aurkako indarkeriak nazioartean giza eskubideen urraketaren aitortpena du. Emakume kopuru handi bati eragiten dio, baita beren seme-alabei ere. Argitaratutako azken galdetegiaren arabera⁴³, Espainiako emakumeen % 15,1ek tratu txarrak jasan ditu edo bikotekidearen edo bikotekide ohiaren beldur izan dira noizbait, eta % 2,7k bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria fisiko edo sexuala jasan du azken urtean. Gutxi gorabehera 10etik 6k seme-alabak zituen indarkeria gauzatu zen unean.

Azaleratzen ez diren kasuak direla eta, fenomenoaren egiazko magnitudea zifra ofizialetan islatzen ez bada ere, Ertzaintzaren erregistroak agerian uzten du krisiaren aurretik **EAEko emakume askok zuela indarkeria hori jasateko arriskua. 2019an, gure autonomia erkidegoan 3.098 emakume erasotu zituen bikotekideak edo bikotekide ohiak eta beste 899 bere familia-inguruneko beste gizonezkoren batek**. Hamar erasotatik bederatzi familia-esparruan gertatu zen⁴⁴.

Familien arteko indarkeriaren biktimen % 26,2 aitak edo gertuko beste senideren batek erasotutako (maiz sexualki erasotutakoa) neska adingabeak ziren. Familien arteko indarkeriaren kasuen % 43,5etan biktima semeak erasotutako emakumea izan zen. EAEn 2002 eta 2018 artean eraildako emakumeen hamarretik sei haiekin bizi ziren gizonen batek hil zituen.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren azterlanen dibisioa.


⁴³ Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BEREINTASUN MINISTERIOA. GENERO INDARKERIAK GOBERNU-ORDEZKARITZA. Emakumearen kontrako indarkeriaren makroinkesta. 2015

⁴⁴ Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILA Ertzaintzaren ikerketen dibisioa.


Zer eragin izan du konfinamenduak emakume horiengan eta haien seme-alabengan? COVID-19aren zabalpenari eusteko neurrien ondorioz, erasotzaileekin denbora asko igaro behar izan dute estres-maila altuko testuinguruan, eta aukera mugatuak izan dituzte etxetik ateratzeko edo laguntza sozial edo instituzionala bilatzeko.

Konfinamendu-aldiaren hilabeteetan zehar emakumeen aurkako indarkeriaren harira jarritako salaketen datu ofizialek jaitsiera erakusten dute aurreko urteko aldi berberaren aldean (-% 17,7). **Jaitsierarik nabarmena bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarena izan da (-% 25,71), baina datua arindu egin da konfinamenduaren azkenetan (-% 11,28).**

Pandemiaren esparruan berrantolatu egin dira lehendik zauden zerbitzu eta baliabideak, eta hala behar izanez gero, baita errefortzu-baliabideak ere; salaketa gutxiago egon direnez, emakume gutxiago eraman dira hiru Foru Aldundien harrerako egoitzetara. **Hala ere, Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzuaren (SATEVI) telefono-kontsultak igo egin dira (% 10,5).** Halaber, Foru Aldundiek eskaintzen duten arreta psikologiko espezializatuetan zerbitzuen jardura esanguratsua izan da hilabeteotan: 5.963 esku-hartze egin dituzte: 1.533 kasu aktibori erantzun die, eta 332 kasu berriren esku-hartzea hasi dute.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren azterlanen dibisioa.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila. Ertzaintzaren azterlanen dibisioa.



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Oharra: Datuok egoki bideratu diren eta egoki bideratu ez diren esku-hartzeak hartzen dituzte kontuan.

EAEko Arretarako Baliabideak		2019ko martxoaren 15-31	2020ko martxoaren 16-31	2019ko apirila	2020ko apirila	Maiatz 2019	2020ko maiatza	2019ko urtarrila-maiatza Alarma-egoerarik ez	2020ko urtarrila-maiatza Alarma-egoeran	Dif. 19/20
LARRIALDIKO EGOITZA-HARRERA ⁴⁵	BFA	7	7	28	15	18	16	53	38	-% 28,3
	AFA	10	0	10	6	5	2	25	8	-% 68
	GFA	6	1	8	6	11	12	25	19	-% 24
ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA	EJ (eskaerak)	28	18	31	13	51	17	110	48	-% 56,4
	EJ (emandakoak)	15	11	21	5	26	3	62	19	-% 69,3

Iturria: Emakunde

Oharra: egoitza-harrerako datuak martxoaren 14tik aurrerakoak dira, eta arreta psikologikokoak martxoaren 16tik aurrerakoak

EAEko Arreta Psikologikoa 2020ko urtarrila-maiatza Alarma-egoeran	Saio kopurua:	Kasu aktiboen kopurua:	Kasu berriek kopurua:
BFA	2.233	649	180
AFA	2.559	421	72
GFA	1.171	463	80

Iturria: Emakunde

Aurreko krisietako ebidentziek erakusten dutenez, estres soziala areagotzen denean, emakumeen aurkako indarkeria-kasuak ere ugartu egiten dira; **horrenbestez, salaketa kopurua jaitsi izana ez da nahastu behar indarkeria kasuen jaitsierarekin; kontrara, esan nahi du kasu horiek estali egin direla** eta emakume erasotuek beste babes-estrategia batzuk bilatu dituztela. Testuinguru honetan, baliteke emakumeek telefono bidezko laguntza psikologikora eta beren hitza isiltzera jo izana, aldaketara bideratuta dauden beste ekintza batzuetara jo beharrean, hala nola salaketara, harremanaren hausturara edo etxea uztera.

⁴⁵ Datuek emakumeen eta beren kargupeko adingabeen harrera berriak hartzen dituzte kontuan

Adituek konfinamenduan zehar **indarkeria ezkutatzea azaltzen duten hainbat faktore seinalatzen dituzte**⁴⁶ :

- Erasotzaileek emakumeei egiten dien jazarpena eta kontrola handitzen dira.
- Zailagoa da laguntza eskatzea biktimak gutxiagotan egoten direlako bakarrik.
- Emakumeek laguntza-baliabideak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzte.
- Beste lehentasun eta larrialdi sozialak nagusitzen diren unean, emakumeek lotsa dute beren arazoa agertzeko.
- Emakumeek errezeloz begiratzen dituzte etxea utzi behar duten erasotzaileei ematen zaizkien etxebizitzarako alternatibak.
- Emakumeek gehiago eusten diote egoerari, hala bizirauteko eta elkarbizitza ahalbidetzeko.
- Areagotu egin da biktimen isolamendu soziala, eta beren babes-sare komunitarioak mugatu egin dira.
- Lanari eta soldatari lotutako ziurgabetasunek erasotzailearengandik urruntzeko eragozpen gehigarriak dakarzkie.

Aurreko ebidentziek pentsarazten digute krisi-testuinguru honetan areagotu egin dela etxean eta beste testuinguru batzuetan indarkeria jasateko arriskua eta **balitekeela emakume askoren eta haien seme-alaben egoerak okerrera egin izana.**

- Tentsioa handitzeak –bereziki konfinamendua espazio txikian igaro bada– eta ziurgabetasunak eragindako estresak indarkeriaren intentsitatea eta larritasuna handitu ditu (indarkeria psikologikotik fisikora edo sexualera igarotzea, edo kasurik larrienean, feminizidioa eragin du).
- Aurrez indarkeria espliziturik jasaten ez zuten emakume batzuk konfinamenduan zeudela hasiko ziren halakorik izaten.
- Osasun- eta justizia-erakundeek gehiegizko lan-karga izan dute eta COVID-19ari erantzutera bideratu dute jarduna; hori ere oztopo izan da genero-indarkeria kasuak identifikatzeko.
- Konfinamendua ezartzeak eta zerbitzu batzuk eteteak erasotzaileek inpunitatea eta segurtasun handiagoa zutelako ustea zabaldu ahal izan du.
- Konfinamenduak familia-topaguneak itxi ondoren, adostasunik gabeko haustura izan duten bikoteetan, edo gatazkaren bat edo tratu txarrak izan dituztenetan, adibidez, baliteke erasotzaileak oztopoak jarri izana seme-alaben bisitak egoki egin ez zitezen. 2017an 18 urtetik beherako 1.145 adingabe inguru artatu zituzten familia-topaguneetan Eusko Jaurlaritzako deribazio judizialagatik⁴⁷.
- Neskek (haurrak zein nerabeak) Interneten denbora gehiago igaro duten honetan, erne ibili beharko da ziberindarkeriaren arriskuen aurrean. 2018ko azterketa⁴⁸ batek dioenez, Espainian 11 eta 17 urte bitarteko nesken % 24k eduki sexuala duen mezurik jaso du inoiz, hau da, sexting-a egin izan diote (mezu sexualak, erotikoak edo pornografikoak bidaltzea eta bistaratzea).
- Gainera, zapalkuntza- eta esplotazio-forma batzuetan, adibidez sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketan, oinarritzko beharrak asetzeko zailtasunak gertatu ahal izan dira.

⁴⁶ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. *Indarkeria sexista osasun-larrialdian: Tokiko administrazioentzako gida* 2020.

⁴⁷ Iturria: EUSKO JAURLARITZA- JUSTIZIAKO ZUZENDARITZA EAEn *Epaeleak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena*. 2017

⁴⁸ Iturria: Hainbat egile. *Actividades, mediación, oportunidades y riesgos online de los menores en la era de la convergencia mediática. Resultados de la encuesta EU Kids online a menores de 9 a 17 años en España*. Leon: Zibersegurtasuneko Institutu Nazionala, 2019.

Martxoaren 16an, alarma-egoera dekretatu eta bi egunera, biktima izan diren emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren jarraipen batzordearen markoan zerbitzuen egokitzapenerako erakundeen arteko lana abiarazi zen, zerbitzuok konfinamendu-aldian berma zitezen. Martxoaren 31n, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta laguntzeko premiazko neurriei buruzko 12/2020 Errege Dekretu-Legearen bidez, genero-indarkeriaren biktimen laguntza-babes integralerako zerbitzuak funtsezkotzat jo ziren.

Zer egoerari eman behar genioke arreta? Bazterkeria-forma anitzen aurrean zaurgarri diren emakumeek eta haurrek traba handiagoak dituzte indarkeria-egoerei ihes egiteko eta laguntza-zerbitzuetara jotzeko.

Faktore desberdinek bat egitearen ondorioz, desgaitasunak dituzten emakumeek (bereziki desgaitasun larriren bat dutenek edo ikasketa- eta komunikazio-zailtasunak dituztenek) indarkeria motaren bat jasateko arrisku handiagoa dute desgaitasunik ez duten emakumeek baino (azterlan batzuek diote % 23,3 direla, eta desgaitasunik ez dutenak % 15,1)⁴⁹. Azpimarratzekoa da **gaixotasun mentalak** dituzten emakumeen egoera ere. Haietako batzuek beste batzuekiko mendekotasuna dute, eta horrek desgaitasunik ez duten emakumeengan hain ohikoak ez diren indarkeria-formak eragiten ditu, adibidez, zaintzaren ukapena edo umiliazioa. EAEn, emakumeen % 11k du mendekotasuna edo mugaren bat⁵⁰

Adineko emakumeei ere erreparatu behar diegu; izan ere, baliteke bikotekideak denbora luzean haiek erasotu izana, baina hala ere haiek beren kasua ez ikustea islatuta informazio- eta sentsibilizazio-kanpainetan. Maiz, adin horretako emakumeak ez dira jabetzen bizi duten egoeraz, eta horrez gain, isolamenduarekin lotutako oztopo gehiago ere izan ditzakete.

Era berean, **emakume migratzaileek, errefuxiatuek, asilo-eskatzaileek eta beren herrialdeetara itzularazi dituzten errefuxiatuek** eraso fisiko, psikologiko, sexual eta instituzionala jasateko arrisku handiagoa izan dezakete. Ertzaintzak 2019an erregistratuta zituen genero-indarkeria pairatu duten kasuen % 38,8 atzerritarra zen⁵¹. Sozialki, haien kontrako xenofobia, estigma eta diskriminazioa handiagoak izan ohi dira, eta zailtasun handiagoak izaten dituzte haien beharrei erantzuteko zerbitzuak eskuratzeko, esaterako, osasun-beharrak asetzeko zerbitzuak eskuratzeko, haietako batzuen egoera administratibo ilegala dela-eta. Zailtasun horiek **pertsonen salerosketari eta sexu-esplotazioari** ere eragin diezaiekete.

Prostituzioan jarduten duten emakumeen egoera ere bereziki delikatu da. Gogoan hartu beharrekoa da alarma-egoeran zehar emakume horiek diru-sarrerak izateari utzi diotela eta ekonomia ezkutuan ibiltzen direla. Zaurgarritasun handiagoko egoera honek jazarpenaren eta esplotazioaren biktima izateko zaurgarritasun handiagoko egoeran jartzen ditu. Gainera, kutsatzeko arrisku handiagoa dute.

⁴⁹ Iturria: GENERO INDARKERIA-RAKO GOBERNU-ORDEZKARITZA- BERDINTASUN MINISTERIOA. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer*, 2015.

⁵⁰ LAN ETA JUSTIZIA-SAILA. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (EDSS), Denbora Aurrekontuen Inkesta (ENS), 2018.

⁵¹ Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN SEGURTASUN SAILA-Ertzaintzaren azterlanen dibisioa.

Etxebizitza-bazterkerian dauden inguruko azken azterketek azpimarratzen dutenez, **etxerik gabeko emakumeek** jasaten duten genero-indarkeria ezkutatu egin izan da urteetan zehar. Kalkulatzen da kalean lo egin izan duen emakumeen % 20k sexu-indarkeria jasan duela, eta % 30ek indarkeria fisikoa⁵². Pandemiak agerian utzi du ordura arte egindako azterlanek⁵³ arazoaren ikuspegi mugatua erakusten zutela; 2016an 2.000 pertsona inguru bizi ziren kalean edo ostatu-baliabiderik gabe, eta horietatik % 21,5 emakumezkoak ziren (% 8 baino gutxiago kalean). Emakume horiek, ordea, ostatu-baliabideetan ere indarkeria jasateko arriskua dute.

Azkenik, konfinamendu-aldian zehar, indarkeria kasuak identifika ditzaketen kanpo-eragileek jarraipen txikiagoa egin ahal izan diete **haurrei**. Europako Kontseiluak⁵⁴ kalkulatu du Europan bost adingabetatik bat sexu-abusuen biktima dela. Indarkeria mota hau nagusiki etxeoko testuinguruan gertatzen da (kalkulatzen da 10 kasutatik 7 norberaren edo senideen etxean gertatzen dela)⁵⁵ eta gehien-gehienean neskei eragiten die, nabarmenago pubertate garaitik aurrerako adinean daudenei (Espainian sexu-askatasunaren aurka ezagutzen diren delituen artean, 13 urtetik beherakoen aurkako kasuen % 75 eta 14 eta 17 urte bitarteko biktimak dituzten kasuen % 81 emakumezkoenak dira)⁵⁶.

Zer espero daiteke konfinamendu ondorenerako? Adu batzuek hipotesi modura diote osasun-krisiaren ondorioz enpleguaren galera, ezegonkortasun ekonomikoa eta estresa neurri handian igoko direla, eta horrek erasotzaileengan botere-galera sentipena sor dezakeela; **galera horrek, era berean, etxe barruko indarkeriaren maiztasuna eta larritasuna handitu dezake, eta etxetik kanpoko beste jazarpen-jokabide batzuk ugaritu** (sexu-jazarpen kasuak ugaritzea, adibidez).

Halaber, ziurgabetasunak eta pandemiaren inpaktu ekonomiko negatiboak –diru-sarreretan galerak egongo direlako– nabarmen eragingo die emakumeei, eta bereziki prekarietate handienean edo ezkutuko ekonomian lan egiten dutenei. Egoera horrek jazarpen-harremanak eteteko aukerak izateko eta mendekotasuna eta estortsio ekonomikoa salatzei aukerak gutxitu ditzake. **Autonomia ekonomikoa galtzeak indarkeria-egoeretatik ateratzeko estrategiak kaltetu ditzake** eta zeharka, erasotzailearen zapalkuntza-boterea handitu.

Konfinamendu-aldian indarkeria jasaten duten emakumeen arreta-zerbitzuak egokitu egin dira osasun-beharrei erantzuteko, eta kasu gehienetan erabiltzaileekin harreman telematikoak lehenetsi da. Gauzak horrela, **pandemia etorri aurretik zerbitzuok artatzen zuten emakumeen gehiengoaren** (erasotzailearekin bizi ala ez) esku-hartze ibilbideak aldatu dira pandemian zehar.

⁵² Iturria: EMAKUNDE. *EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2016.

⁵³ Iturria: SIIS. *EAEko bizitegi-bazterketa larria dauden egoerari buruzko III. azterketa*, 2016

⁵⁴ Zifra hau Europako ikertzaile-talde batzuek egindako hainbat azterlanen emaitzen konbinaziotik sortua da, eta bat dator hainbat erakundek aurkezten dituzten estatistikekin. Horien artean azpimarratzekoak dira UNICEF, Lanaren Nazioarteko Erakundea eta Osasunaren Mundu Erakundea. Iturria: Europako Batzordea <https://www.coe.int/es/web/human-rights-channel/stop-child-sexual-abuse-in-sport>

⁵⁵ Iturria: ANAR FUNDAZIOA. *Evolución de la violencia a la infancia y la adolescencia en España según las víctimas (2009-2016)*. Madril: ANAR Fundazioa, 2017.

⁵⁶ Iturria: *Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena*. 2017. Barne Arazoetako Ministerioa. *Estatuko Segurtasun Idazkaritza*. Kriminaltatearen Estatistika Sistemaren (SEC) ustiapenaren ondoriozko datuak dira. SECean biltzen diren datuak atestatuen instrukzioa egiteko oinarri diren polizia-jarduketaren ingurukoak dira. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen, Autonomia Erkidegoetako polizien eta udaltzaingoen datuak biltzen ditu.

Era berean, emakumeek bizipen gorabeheratsuak eta konplexuak eduki ahal izan dituzte isolamendu-aldi luze batez. Horrenbestez, egoera hori oso kontuan hartu beharko da emakumeei bere onera etortzen laguntzeko prozesuetan –atzerapausoak edo beldur gehigarriak gerta daitezke, besteak beste–.

Bestalde, **haurrak eta nerabeak** bizi diren etxeetan emakumeen aurkako indarkeriak eragin negatiboa izango du haiengan ere: indarkeria, trauma osteko estresa, depresioa, antsietatea eta epe luzeko eragina izan dezakete haien garapenean.

Azkenik, adituek gogoetagai publiko izan duten beste arrisku bat ere gogoan hartu behar da. Pandemia osteko krisi-testuinguru batean, **aurreikustekoa da presioa areagotzea orokorrean indarkeriaren biktima diren emakumeei eta bereziki gero eta konplexuagoak diren bazterkeria-prozesuetan dauden emakumeei arreta ematen dien baliabide publikoetan.** Ondorioz, erne ibiltzea ezinbestekoa izango da emakumeen aurkako indarkeria-forma guztiei erantzuteko.

GOMENDIOAK: *Emakumeen aurkako indarkerian duen eragina*

 Prebentzio-zerbitzu guztien funtzionamendu egokia eta indarkeriaren aurreko erantzuna mantentzea eta lehenestea, arreta-zerbitzuak eta emakumeen aurkako indarkeria uneoro funtsezko zerbitzuak direla bermatuz.

 Ikerketa eta azterketak sustatzea jakiteko nola gertatu den indarkeria konfinamendu-egoeran, balizko patroia aldakorrak identifikatzeko eta emakumeengan izan duen inpaktua neurtzeko. Aldi berean, indarkeriak konfinamenduan hartu dituen formak identifikatzea, eragin mota desberdinak ikusarazteko eta arretarako eta erreparaziorako mekanismo aproposak aktibatzeak.

 Emakumeei eta beren-seme alabei konfinamendu-aldiaren ondoren arreta handiagoa emateko aukera aurreikustea, erasotzailearekin bizitzen egon badira ondoeza pilatuko baitzuten. Horren guztiaren helburua erantzun egokia ematea da, eta behar izatekotan, neurri bereziak indartzea edo berriak martxan jartzea.

 Arretan inplikaturako neurri guztien erantzun koordinatua indartzea: gizarte-zerbitzuak, polizia, justizia eta osasuna, biktima guztiak duten arrisku-mailaren arabera babesteko.

 Larrialdiko alerta-mekanismoak indartzea, larrialdietan erantzuna bizkortzeko eta bermatzeko.

 Besteak beste senideei, lagunei eta bizilagunei zuzendutako sentsibilizaziorako eta zerbitzuen hedapenerako kanpainak abiatzea, baita bizirik irten diren emakume eta neska biktimentzako baliabideak ere, elkartzunezko eta elkar laguntzazko kultura sortzeko. Kanpaina hauetan emakumeen aniztasuna bistaratu behar da, emakume nagusiak ahaztu gabe.

 Osasun-sistemako profesionalen –bereziki lehen arretakoen– rola indartzea emakumeen aurkako indarkeria kasuen detekzio goiztiarra egin dezaten, eta indarkeria matxistari lotutako emakumeak medikalizatzea ekidin dezaten.

 Haurren eskuragarri egongo diren kanal batzuk ezartzea tratu txarren egoerak jakinarazteko edo salatzeak, eta hurrek etxean duten jazarpena eta indarkeria ekiditeko.

 Bermatzea COVID-19aren krisiak irauten duen bitartean eta gerora zerbitzu judizialak mantentzen direla eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren erantzuna lehenetsuntzat dutela, hau da, erasotzaileak prozesatzen eta zigortzen dituztela eta mekanismo birtual eta alternatiboen bidez justiziarako sarbidea errazten dutela.

 Lantokietan, eta heziguneetan (aurrez aurrekoak zein birtualak) emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa sustatzea.

 Ziberindarkeriari eta zibererasoei erantzuteko eta haiek ekiditeko estrategiak sortzea.

Pobrezian eta bazterkerian duen eragina

Krisi honen aurretik, etxebizitzetako buru emakumeak direnen artean, % 12,4 pobrezia arriskuan zegoen;

**tasa hori
batezbest
ekoa
baino**




**altuagoa da.
Pandemiak
desberdintasun hori
areagotu dezake.**

Emakume batzuk zaugarriagoak dira eta bazterkeriarako arrisku handiagoa dute: desgaitasuna duten emakumeak, gaixotasun mentalen bat dutenak, emakume nagusiak, emakume etxegabeak, emakume migratzaileak, prostituzioan jarduten duten emakumeak, indarkeriatik bizirik irten direnak, familia gurasobakarrak daramatzaten emakumeak, ezkutuko ekonomian lan egiten dutenak...


Zein da abiapuntua? Pandemiaren lehen kolpea iritsi zenean, Euskadiko norbanako zein familia asko 2008ko krisitik suspertu gabe zeuden artean. Txirotasunaren eta Desberdintasun Sozialaren azken inkestak (2018)⁵⁷ agerian utzi du EAEko populazioaren % 8 mantenu-txirotasun egoeran zegoela, etxean oinarritzko beharrak asetzeko adina diru-sarrerarik ez zuelako, eta kalkulatu zen biztanleriaren % 6,1k pobrezia erreala bizi zuela⁵⁸. Gainera, biztanleriaren %22,4k ongizate-gabezia zuen, hau da, ez zuen diru-sarrera nahikorik gurearen moduko jendartearen espero daitekeen ongizate-mailara iristeko dauden gastu-beharrei erantzuteko.

Datuek, era berean, pobrezia feminizazioa ere erakusten zuten. Pobrezia arrisku-tasa handiagoa zen emakumeengan gizonengan baino (emakumeen % 8,5, eta gizonen % 7,4) eta emakumeak buru zituzten etxeetan (etxe horien artean % 12,4k mantenu-txirotasuneko arriskua zuen, eta % 9,3k pobrezia erreala). Diru-Sarrera Bermatzeko Errenten % 58,3 emakumeenak ziren (DBE, hemendik aurrera): 330.557 emakumek 2020ko otsailean kobratuko dute errenta hori⁵⁹. Egoera are gordinagoa da generoa beste aldagai batzuekin gurutzatzen denean, hala nola adinarekin, jatorriarekin edo desgaitasunarekin.

TXIROTASUN-ARRISKUA



BENETAKO TXIROTASUNA



Iturria: Eusko Jaurlaritza- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txirotasunaren eta Desberdintasun Sozialaren inkesta (EPDS). 2018

Krisi berri honen inaktuak zer eragin du? Krisiak eragina du osasun- eta ekonomia-dimentsioetan, baina duen eragin sozialari ere erreparatu behar zaio. Dimentsio hori ahazteak **abiaburuko desberdintasun-egoera finkatzeko edo nabarmen areagotzeko arriskua ekar dezake.**

EAEn konfinamendu-aldian zehar egindako galdetegi baten emaitzek⁶⁰ adierazten dute galdegindako emakumeen % 11k uste duela koronabirusagatik egoera ekonomikoak nabarmen egin zuela okerrera; gauza bera sentitzen zuten gizonezkoen ehunekoa hiru puntu baxuagoa da (% 8). Orobat, emakumeak ezkorragoak dira etorkizuneko egoera proiektatzeari dagokionez.

⁵⁷ Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txirotasunaren eta Desberdintasun Sozialaren inkesta (EPDS). 2018

⁵⁸Oinarritzko behar horiek asetzeko adierazitako mugetara iristen ez diren diru-sarrerak dituztenak txirotasun-arriskuan daude. Arrisku-arazoez edo -egoerak ez dute automatikoki eragiten benetan pobrezia bizitzea. Hala ere, adierazle horrek aukera ematen du benetako pobrezia-egoeren inpaktua neurtzeko. Izan ere, honako hau zehazten du: premien estaldura nahikoa ez izateagatik arrisku-egoerak zer egoeran ez dauden behar adina konpentsatuta ongizate-elementuekin biztanleriaren eguneroko bizitzan.

⁵⁹ Iturria: LANBIDE. DBE espediente aktiboak. 2020.

⁶⁰ Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA- EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA *Euskadiko herritarrak COVID-19aren aurrean* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2020.

Enpleguaren galerak eta baliabide ekonomikoen murrizketak pobrezia-maila handitzea ekar dezakete, baina bazterkeria sozialean zeresan handia izan dezakete krisi testuinguru honetako beste faktore batzuek ere: osasuna okertzeak eragindako arazoek, arazo psikologikoek, babes-sareen gabeziak, arazo administratibo eta juridikoek, arrakala digitalak, indarkeriak, etab.

Zentzu horretan, **aurrez zaurgarritasun handiagoa eta bazterkeria-arriskua duten emakumeek eman behar zaie arreta: desgaitasuna duten emakumeak, gaixotasun mentalak dituztenak, adineko emakumeak, emakume migratzaileak, etxerik gabeko emakumeak, prostituzioan aritzen diren emakumeak, indarkeriatik bizirik irten diren biktimak, familia gurasobakarretako buru diren emakumeak eta ezkutuko ekonomian lan egiten dutenak.** Garrantzitsua da aintzat hartzea maiz emakume zaurgarrienak direla krisiaren inpaktu negatiboari aurre egiteko prestazio eta onartutako neurri bereziak eskuratzeko zailtasun gehien dituztenak.

Emakume horietako askoren behar sozialei Hirugarren Sektore Sozialaren entitateek erantzuten zieten. Konfinamendu-aldian zehar, erakunde horietako askoren ohiko jarduna eten egin da, eta ondorioz, jendarte osoari eragiten dioten neurriek eragin bereziki negatiboa izan dute haiengan. Errutina eten duten emakume eta neskek erreferentziak galdu dituzte, arreta psikosoziala izateari utzi diote kasu askotan, ezin izan dute aisialdi eta denbora libreko jarduerarik egin; konpainia, esku-hartze terapeutikoa, eskola-babesa, eta prestakuntza jasotzeari utzi diote, edo elkarlaguntzako topaketetan parte hartzeari utzi diote, besteren artean.

Adineko emakumeek bazterkeria sozialeko arrisku handiagoa zuten emakume eta aldi berean adineko izateagatik. Horietako batzuek gaixotasun kronikoak dituzte, eta beste batzuk bakardadean bizi dira (ez nahita bilatutakoa). Haietako askok, beren bizi ibilbidearen amaieran, guztiz prekarioak diren pentsioak jasotzen dituzte, zeinak arrakala esanguratsua baitute gizonen pentsioarekin. EAEko alarguntze-pentsio guztiak emakumeek jasotzen dituzte, eta emakume gehienek erretiro baxuagoak kobratzen dituzte; horren adierazgarri da 65 urte edo gehiago dituztenen artean emakumeen % 21,6k eta gizonen % 11,7k kobratzen dutela DBEa⁶¹.

Krisiaren aurretik, **emakume migratzaile eta arrazializatuen** artean, pobrezia-arriskua batezbestekoa baino altuagoa zen. Buru atzerritar nazionalitatea duen norbait duten etxeen pobrezia errealtatearen tasa % 30,7koa zen; buru Espainiar nazionalitatea duten etxeen artean, berriz, tasa hori % 4,2koa zen⁶².

Emakume migratzaile gehienak funtsezko zutabea dira beren familietan eta jatorri-herrialdean, eta bi herrialdeetan eragiten die prekaritateak, eta enpleguaren eta diru-sarreraren gabeziak. Ikusarazi behar da mugen itxierak eragin kalkulazina duela migratzaileen, errefuxiatuen, asilo-eskatzaileen eta familia transnazionalen bizitzan. Gainera, beren egoeraren gaineko kezka aparte, beren jatorri-herrialdean pandemiak duen eraginak ere kezkatzen ditu, bertako senideen osasunaren eta ongizate orokorraren egoeragatik.

Egoera administratiboa oso garrantzitsua da emakume horien bizi proiektuetan, beren erabakiak eta ongizateak baldintzatzen dituelako. Lan-egoera erregularra duten emakume askok lana galtzeko beldurra izan dute eta askori beren egoitza-baimenak berritzeko prozesuak eten dizkiete. Lan-egoera irregularra duten emakumeek ezingo dute inongo ezohiko neurriren onuradun izan.

⁶¹ LANBIDE. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta aktiboak. 2020.

⁶² Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txirrotasunaren eta Gizarte Gaien Inkesta. 2018.

Arreta berezia eman behar zaio, era berean, **familia gurasobakarren** pobrezia-arriskuaren tasak igotzeko aukerari. Etxe horiek gehien-gehienean emakumeak dituzte buru, eta 2018an pobrezia errealaren tasa batezbestekoa baino bi bider handiagoa zuten. Bikote batek eta seme-alabek osatutako familietan tasa hori % 5ekoa bazen, familia gurasobakarretan % 15ekoa zen⁶³.

Ez dugu ahaztu behar zentzu horretan emakumeen egoera eta haur eta nerabeena estu lotuta daudela. Pobrezia-arriskurako ehunekorik altuenak etxe mota hauek dituzte: jatorri atzerritarra dutenak buru dituztenek, adingabeak dituztenek, buru emakumeak dituztenek, familia gurasobakarrek eta familia ugariek. Krisi honek emakumeengan duen inpaktuaren ondorioz, haurren eta nerabeengan ere eragiten du.

Azkenik, azpimarratzekoa da Euskadiko Sektore Sozialaren hiru entitatetatik bik (% 66,3)⁶⁴ adierazi dutela haiekin lanean ari diren pertsonen konfinamenduan zehar arrakala digitala izan dutela. Interneterako sarbiderik edo ordenagailurik ez izateak, alfabetizazio-digitalaren mugek eta tramite telematikoen eskuragarritasun urriak beste oztopo bat gehitu diote berez konplexua zen pandemia testuinguruari. Ondorioen artean hauek dira azpimarratzekoak: desinformazioa, hezkuntzaren moduko oinarritzko eskubideen urraketa, gizarte-neurri eta -prestazioetarako sarbiderako zailtasunak, familiarekin, babes-sareekin edo erreferenteekin online komunikatzeko zailtasunak, online prestakuntzarako zailtasunak, etab.

Esandako guztiagatik, pobrezia- eta bazterkeria-egoerak ugartzeko, sendotzeko edo larritzeko arriskua dago; beraz, adi egon beharko da desberdintasunak gutxitzeko, bereziki erne egonda COVID-19ak eragindako krisiak ez dezan pobrezia-aren feminizaziorik ekarri.

⁶³ Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txiratasunaren eta Gizarte Gaien Inkesta. 2018.

⁶⁴ Iturria: HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA. *Covid-19ak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan izan duen eragina* [online]. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia, 2020.

GOMENDIOAK: *Pobrezian eta bazterkerian duen eragina*



Gizarte-inbertsioaren, babes sozialerako eta osasun-sistema sendoen eta babes sozialerako politika publiko bermatzaileen beharrari garrantzia ematea, inor atzean gera ez dadin.



COVID-19ari aurre egiteko hartu diren neurri guztietan emakumeen eta gizonen intzidentziaren jarraipena egitea, babes sozialerako neurriek emakumeei eta gizonei berdin egiten diela mesede ziurtatzeko, aintzat hartuta pobrezia eta bazterkeria handiagoa dela emakumeen kasuan. COVID-19arekin egiten diren babes sozialerako tresna horiek desberdintasunak gutxitu behar dituzte, eta ez handitu.



Familia gurasobakarren eta bereziki zaugarriak diren beste talde sozial batzuen berariazko beharrak kontuan hartzea, bereziki espazio horietan emakumeak gehiengoak badira.



Etterik ez dutenei bizi-baldintza duinak bermatzea: babes-, elikadura- eta medikazio-neurriak hartzea; eguneko zentroak eskaintzea etxerik ez dutenen aterpe eta pisuetan bizi direnei, eta horien artean, arreta berezia ematea etxerik ez duten emakumeei.



Zaugarritasun handiena duten familietan bizi diren haurren aukera-berdintasuna ematea zerbitzuak, prestazioak eta baliabideak indartuz.



Laguntza psikosozialerako zerbitzuak martxan jartzea familitatik urrun dauden, gizarte-edo familia-sarerik ez duten eta haien etxetik edo ohiko ingurunetik kanpo konfinatuta dauden emakumeentzat.




Administrazio-izapide guztietarako sarbidea bermatzea, arrakala digitala kontuan hartuta.



Lotura sozialak mantentzea sustatzen duen erantzun solidarioa artikulatzea. Isolamenduaren eta individualismoaren aurrean, solidaritateak ongizate kolektiboa bilatzea sustatu behar du.



“ Pandemian zehar, **emakumeek zeregin nagusia** izan dute bizitzaren jasagarritasunari dagokionez, baina erabakiguneetan gizonak nagusitu dira: LABI COVID-19tik eratorritako krisiaren batzorde aholku-emailea 10 gizonak eta 2 emakumeak osatu dute.



“ Krisiaren aurrean generoa kontuan hartzen duen erantzun eraginkorra bermatzeko, funtsezkoa da erantzun-plan guztietan emakumeak egotea.

Zertan eta nola parte hartu dute emakumeek krisi honetan? Emakumeak nagusi izan dira pandemiaren aurkako borrokan rol esanguratsua izan duten sektore ekonomikoetan: osasun-sisteman, egoitzetan, botikan, gizarte-zerbitzuetan, garbiketan, etxeko lanetan (profesionalki), elikagai-sektorean, etab. Era berean, funtsezkoak izan dira etxeko esparruan adingabeak eta mendekotasuna duten beste pertsona batzuk zaintzeko.

Hala eta guztiz ere, pandemiak eragindako krisi honen testuinguru korapilatsuan, **desoreka batzuk izan dira erabakiguneeko partaidetzan**, batez ere, larrialdiaren kudeaketaren esparruan. Garrantzitsua da aintzat hartzea erabakimenean dagoen desoreka horrek baldintzatzen duela emakumeen berariazko beharrak zenbateraino hartzen diren kontuan, hala epe laburrera – laguntzen diseinuan eta ezarpenean– nola epe ertainera eta luzera hartzen diren babesneurrietan.

COVID-19ak eragindako krisia kudeatzeko berariazko neurriak hartzeaz arduratu diren erakundeetan, emakumeen eta gizonen ordezkaritza desparekidea izan da. Zehazki **EAEn LABI Aholku Batzordea 10 gizonetik eta 2 emakumetik osatu dute**. Hala ere, kontuan izan behar da ez dela adituen batzorde bat izan; izan ere, organo horretan parte hartzeko irizpidea izan da pertsona horiek euskal erakunde publikoetan zuten kargua. Halaber, aditutasun eta jakintza espezializatuak aitortzeari dagokionez ere desoreka ikusi da: hedabideetan, gizonen presentzia nagusitu da osasun publikoko ikertzaileen eta epidemiologoaren artean. Sarri emakume ikertzaileak eta espezialistak bigarren maila batera baztertu dituzte.

Beste alde batetik, esan behar da EAEn parekideagoa izan dela agerraldi publikoetako parte-hartzea; izan ere, pandemia-garaian agerraldi publiko gehienak Lehendakariak, Osasun Sailburuak eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailburuak egin dituzte (azken biak emakumezkoak).

Pandemian zehar erabakimenean ikusi diren desoreka nagusiak aurretiazko egoera desorekatuaren isla dira. Txosten honen abiaburura itzuliz, gogora dezagun «Boterea» dimentsioa dela genero-arrakalarik handiena erakusten duena (58 puntu) Genero Berdintasunaren Indizean⁶⁵: arrazoi nagusia «botere ekonomikoa» dimentsioan emakumeek duten ordezkaritza baxuegia izatea da. Dimentsio horrek enpresetako eta bankuetako zuzendaritzari (41,3 puntu) eta «botere soziala» dimentsioari erreparatzen dio (53,9 puntu).

Beste alde batetik, Indize horrek «botere politikoa» dimentsioan positiboki nabarmentzen den balioa erregistratu du (87,7 puntu, EB-28ko batezbestekoaren –55 puntu– oso gainetik). Datu horrek azken urteetan esparru politikoan izandako aurrerapauso garrantzitsuak islatzen ditu: organo legegileen eta betearazleen ordezkaritza parekidea izan da autonomia erkidegoan, lurralde historikoan eta lekuan leku.

Azkenik, aipatzekoa da alarma-egoeran zehar larrialdiko arauak hartu direla eta ez dela haien inguruko genero-inpaktuari buruzko txostenik egin. Hala ere honek ez du esan nahi gutxieneko genero-azterketarik egin ez denik. Izan ere, Estatuak eta autonomia-erkidegoek pandemiaren garaian onartutako arau eta neurrietan genero-ikuspegia zenbateraino txertatu den aztertzeak egindako azterlanen arabera, Eusko Jaurlaritzaren kasuan aztertu diren ia arau eta neurri guztietan genero-ikuspegia jasotzen da. Edonola ere, txosten horiek genero-ikuspegia aintzat hartzeari buruzko informazioa ematen dute emakumeak eta gizonak bereiziz, hala desberdinkeriak eta diskriminazioa identifikatzeko. Era berean, garrantzitsua da krisiaren larrialdi-uneetan berdintasunera bidean lortu ditugun tresnak erabiltzen jarraitzea atzerapausoak saihesteko.

COVID-19aren pandemiak emakumeei eta gizoni desberdin eragiten diela aitortzea giltzarria da erantzun eraginkor bat ziurtatzeko, pertsonetan ardazten dena eta genero-aldagaiarekiko sentibera dena. Emakumeak erantzun-planetan eta erabakiguneetan egotea ere funtsezkoa da.

Aitortu beharrekoa da Covid-19aren aurretik mugimendu feministek dagoeneko aurreratu egiten zituztela pandemiak mahaigaineratu eta nabarmendu dituen arazo larriak. Ekofeminismoaren oinarriek ohartarazten zuten bizimodu desorekatuarekin lotutako zaintza-krisia ari zela gertatzen, eta haren aurrean bestelako garapen-eredu bateko apustua proposatzen zuten. Beharbada iritsi da sozialki justuagoa, feministagoa, jasangarriagoa, demokratikagoa eta inklusiboagoa den jendartea aldarrikatzen dutenei gehiago aditzeko momentua.

⁶⁵ Iturria: EUSTAT. Genero Berdintasunaren Indizea 2017

Pandemiaren ondoren, irudika al dezakegu jendarte berdinzeleagorik? Ziur aski ez, begirada beste alde batera badaramagu, baina une hau gure sistema sozial, ekonomiko eta politikoa aldarazteko aukera moduan ere ikus dezakegu, zeinak krisi honi eta balizko hurrengo krisiei hobeto erantzutea ahalbidetuko bailiguke.

GOMENDIOAK: *Parte-hartzea, inpaktua gutxitzeko gako*



Espazioak sortzea eta neurriak hartzea zaintza eta bizitza jasangarria erdigunean jartzen duen eredu ekonomiko eta sozialeranzko aldaketa sustatzeko. Neurriak hartzea etxeetan zein etxeetatik kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduera sozialki eta ekonomikoki aitortzeko, hala zaintza eta bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzen dituen ekonomia- eta gizarte-ereduetara eraldatzeko.



Genero-ikuspegia txertatzea COVID-19aren pandemia eta krisiari aurre egiteko politika eta ekintza guztietan; sistematikoki kontuan hartzea emakumeen eta gizonen egoera, ondorio, baldintza, asmo eta behar desberdinak. Horretarako desberdintasunak ezabatzeke eta politika eta ekintza guztietan berdintasuna sustatzeko berariazko helburu eta jarduketak erabiliko dira maila guztietan eta planifikazio-, gauzapen- eta ebaluazio-fase guztietan.

- COVID-19aren aurreko instituzioen erantzunean genero-ikuspegia erabiltzea errazten duten espazioak, instrumentuak eta metodologiak erabiltzea.
- Erabakiak hartzen, politikak egiten eta neurriak hartzen dituztenak gaitzea politika publikoetan genero-ikuspegia erabil dezaten.



COVID-19aren pandemiari eta krisiari aurre egiteko hartzen diren neurriek eta egiten diren politikek honako printzipio orokor hauek kontuan hartzen dituztela bermatzea: berdintasuna tratuan, aukera-berdintasuna, aniztasunari eta desberdintasunei errespetua, genero-ikuspegia, ekintza positiboa, sexuaren araberako rol eta estereotipoen banaketa deusezte, ordezkartzaren banaketa parekidea izatea eta koordinazioa eta lankidetzak.



Emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartze orekatua eta genero-ikuspegia bermatzea COVID-19aren efektuei aurre egiteko erantzun eta neurrien erabakiguneetan. Pandemian zehar funtsezko jarduerak egin dituzten emakumeak kontuan hartzea (osasun-langileak, arlo soziosanitariokoak...) agerraldien aurreko prestakuntza eta erantzunak erabakitzeko prozesuetan, eta COVID-19arekin lotutako politika autonomiako, lurraldeko eta tokiko administrazioetako ordezkartza ziurtatzea.



Pandemian zehar eta ondorengo etapetan harremanak eta parte hartzeko lankidetzarako bideak ezartzea emakume talde eta talde feministekin, baita helburu edo funtzioengatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lan egiten duten hirugarren sektoreko entitateekin ere. Emaizten planifikazioan ikuspegi intersektionala izatea garrantzitsua denez, giltzarria izango da emakumeen kolektibo desberdinak ordezkatzeko dituzten antolakuntzak ere aintzat hartzea (landa-eremuetako emakumeak, migratzaileak, arrazializatuak, desgaitasuna dutenak eta LGBTIQ emakumeak, besteak beste).



- AMNISTIA INTERNACIONAL. *Decálogo de derechos humanos para afrontar COVID-19* [online]. Amnistía Internacional, 2020 [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 18a].
- BACIGALUPE, AMAIA; GARCÍA-CALVENTE, MARÍA DEL MAR eta SAENZ, MARGA. *COVID-19 y su impacto en la salud de las mujeres: aprendizajes y propuestas*, 2020ko maiatzaren 28a. Webinar. Emakunde.
- BALLUERKA LASA, NEKANE et al. *Las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento* [online]. EHU, 2020 [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 18a].
- BENLLOCH, CRISTINA eta AGUADO BLOISE, EMPAR. *Teletrabajo y conciliación: el stress se ceba con las mujeres* [online]. The Conversation, 2020ko apirilaren 29a. [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 17a].
- EUROPAKO BATZORDEA. *Estrategia para la igualdad de género: trabajar por una Unión de la Igualdad*. Bruselas:Europako Batzordea, 2020.
- EUSKAL HERRIKO KOORDINADORA FEMINISTA. *Bizitzak erdigunean: Covid-19aren krisiari eta neoliberalismo patriarkal eta kolonialari aurre egiteko proposamenak* [online]Euskal Herriko Koordinadora Feminista, 2020. [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 18a].
- CREACIÓN POSITIVA. *Reflexiones sobre los derechos de las mujeres, salud, Covid-19 y crisis* [online] Pikara Magazine, 2020 [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 18a].
- EMAKUNDE. *Covid-19ari aurre eginez eta etorkizuna eraikiz berdintasunetik: Gomendioak* [online]Vitoria-Gasteiz:Emakunde, 2020.
- EMAKUNDE. *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak*.Vitoria-Gasteiz:Emakunde, 2019.
- EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Gender-based violence* [online]. European Institute for Gender Equality, 2020. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 19a].
- FARRÉ, LIDIA eta GONZÁLEZ, LIBERTAD. *¿Quién se encarga de las tareas domésticas durante el confinamiento? Covid-19, mercado de trabajo y uso del tiempo en el hogar* [online].Universitat Pompeu Fabra, 2020. [kontsulta: 2020ko ekainaren 17a].
- NAZIO BATUEN POPULAZIOAREN FUNTSACOVİD-19: *Genero hurbilpen bat: Osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak bebestea eta genero berdintasuna babestea* [online].Nueva York.2020.
- GARCÍA-CALVENTE, MARÍA DEL MAR et al. *Desigualdades de género en la investigación en salud pública y epidemiología en España (2007-2014)* [online]. SCIELO España, 2015 [kontsulta-data 2020ko ekainaren 17a]
- GARCÍA-CALVENTE, MARÍA DEL MAR; DEL RÍO LOZANO, MARÍA eta MAROTO NAVARRO, GRACIA. *Género, cuidados y coronavirus: antes, durante y después de la pandemia* [online].Escuela Andaluza de Salud Pública, 2020. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 19a].
- ESPAINIAKO GOBERNUA. *La perspectiva de género, esencial en la respuesta a la COVID-19*. Madril: Berdintasun Ministerioa, 2020.

- HUMAN RIGHTS WATCH. *Europe: abortion curbs endanger women, girls in pandemic* [online]. Human Rights Watch, 8 Abr 2020. [2020ko ekainaren 17a].
- HUPKAU, CLAUDIA eta VICTORIA, CARLOS. *Covid-19 y desigualdad de género en España* [online]. EsadeEcPol Insight #8, 2020 [kontsulta-data: ekainaren 17a].
- LARRAÑAGA, MERTXE eta PAZOS, MARÍA. *COVID-19 y la igualdad en el ámbito económico: aprendizajes y propuestas*, 2020ko ekainaren 11. Webinar. Emakunde.
- HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA. *El impacto de COVID-19 en las organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi 2020* [online]. Hirugarren Sektor Sozialaren Euskal Behatokia, 2020 [Kontsulta: 2020ko ekainaren 17a].
- LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN BEHATOKIA. *La COVID-19 y el mundo del trabajo. Bosgarren edizioa. Estimaciones actualizadas y análisis* [online]. Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2020. [Kontsulta-data: 2020ko ekainaren 6a]
- NBE EMAKUMEAK. *Las mujeres y el COVID-19: Cinco acciones que los gobiernos pueden adoptar sin demoras* [online]. ONU EMAKUMEAK. 2020ko martxoaren 26a [ekainaren 17a].
- NBE EMAKUMEAK. *Prevención de la violencia contra las mujeres frente a covid-19 en América Latina y el Caribe* [online]. NBE Emakumeak, 2020ko apirilaren 23a. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 17a].
- NBE EMAKUMEAK. *Lista de verificación para la respuesta al COVID-19* [online]. NBE EMAKUMEAK, 2020ko martxoaren 20a. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 18a].
- OYARBIDE, JOSUNE; ZILBETI, MAIDER eta ITURRIOZ, JOSEBE. *COVID-19aren testuingurua feminismoaren ikuspegitik: ikaspenak eta proposamenak*, 2020ko ekainaren 11. Webinar. Emakunde.
- PLATAFORMA INFANCIA. *Medidas prioritarias para la infancia en la crisis de COVID-19*. [online] EAPN, 2020. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 18a].
- PNUD. *Los impactos económicos del COVID-19 y las desigualdades de género: Recomendaciones y lineamientos de políticas públicas* [online]. PNUD, 2020ko apirilaren 6a. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 18a].
- PNUD. *COVID-19 y Género: Respuestas inclusivas para no dejar a nadie atrás* [online]. PNUD. [Kontsulta: 2020ko ekainaren 18a].
- RAMOS, MÓNICA; VÁZQUEZ, NORMA eta FREUDENTHAL, JORGE. *COVID-19 y violencia contra las mujeres. Aprendizajes y propuestas*, 2020ko maiatzaren 14a. Webinar. Emakunde.
- RAMOS, JOSÉ eta GÓMEZ, ALICIA. *¿Por qué los retos de la conciliación en tiempos de covid-19 son todavía mayores para las mujeres?* [online] IVIE, 2020 [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 18a].
- UNICEF. *Políticas amigables para las familias y buenas prácticas en el lugar de trabajo el contexto COVID-19* [online]. UNICEF, 2020 [kontsulta-data: 2020ko ekainaren 18a].



MARTXAN JARRITAKO
NEURRIAK

* EMAKUNDE. COVID-19ari aurre eginez eta etorkizuna eraikiz berdintasunetik: *Eusko Jaurlaritzaren Gomendioak eta Neurriak*..

* EUSKO JAURLARITZA. *Eusko Jaurlaritzaren Informazioa eta Neurriak*..